



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 7a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (16. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Artaxoako eta Mendigorriko eskoletan D eredu ezartzeko beharriari buruz. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (21. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2006-2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2010eko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
-NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, ordezeko testuarekin. 2010eko martxoaren 17ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

1. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“a) Etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubide subjektiboa Nafarroan bermatzen laguntzea eta, horretarako, etxebizitza babestuaren eskaintza arautzea, benetako beharrei ahalik eta hobeki en egoki dadin”

Zioak: Ezinbestekoa da Nafarroan ekarpena egiteko urratsa egitea eta ziurtatzea pertsona guztien eskubide subjektiboa dela etxebizitza bat izatea.

3. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. bis artikulua. Eskubidearen titularrak.

Foru lege honetako 1. artikuluan etxebizitza eskuratzeko aitorturiko eskubidearen titularrak dira Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsonak, baldin eta gutxienez ere hiru urte badaramatzate etenik gabe errolatuta Nafarroako edozein udaletan eta, orobat, foru lege honetan etxebizitza babestua lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte”

Zioak: Aipatzea nor diren eskubide horren titularrak eta zein diren eskubide hori baliatu ahal izateko bete beharreko baldintzak.

4. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. ter artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboaz eta unibertsalaz baliatzea.

Nafarroako Gobernuak bermatu behar die foru lege honetan aitorturiko eskubidearen titularrei, hots, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboren eta unibertsalaren titularrei, eskubide horretaz baliatu ahal izatea eta beraz etxebizitza bat eskuratzea, gehienez ere eskubideaz baliatzeko eskatu zutenetik hiru urteko epean.”

Zioak: Eskubide eraginkorrek muga bat izan behar du denboran, administrazioek eskubide hori ziurtatzeko eta eraginkor egiteko betebeharrari dagokionez. Bestela, eskubideak ez luke inolako

baliorik izanen eta zeharo hutsalduta geratuko litzateke.

2. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatiari beste letra bat, h) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“h) Iraungarritasunaren, lurraren okupazioaren kontrolaren eta mugikortasun iraunkorren irizpideak saritzea eta ekartzea.”

Zioak: Kontzeptu zeharo ezinbestekoak jaso beharra dago.

6. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatiari beste letra bat, i) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“i) Alokairuzko etxebizitzaren banku publikoa sortzea, etxebizitza eskuratzeko eskubidea ziurtatzeko eta jabetzaren ordezkariaren aukera sustatzeko.”

Zioak: Lege honen xede nagusia da alokairuaren aldeko apustua egitea eta hori publikoa izatea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko a) letrako lehen bi puntuak aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“– Foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenen egiazko beharizanak betetzeko etxebizitza-eskaintza egokia eta nahikoa ziurtatzea.

– Etxebizitzaren kalitatea, esleipen-hartzaileena eta haiek bizi behar diren ingurunearena hobetzea.”

Zioak: Helburu horiek lehentasuna dute, eta legean baino hobeki jasota daude horrela.

8. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko b) letrako izenburuaren eta bigarren puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“b) Ingurumenaren eta garapen iraunkorren eta orekatuaren arlokoak:

– Gaur egun etxebizitzetarako dagoen ondasun higiezinaren parkea zaintzea, zaharberritzea, eraberritzea edo berritzea.

– Aurrezpen eta efizientzia energetikoa.”

Zioak: Helburuen definizioa hobetzea.

4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

9. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 7. idatz-zatiko a), b) eta c) letrak aldatzeko zuzenketa. Artikulua honela geldituko litzateke:

a) Espainiako nazionalitatea izan eta Espainiari kanpora bizi arren, Espainian izandako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerriri batean izan dutenak, bi urtetik gorako antzinatasunarekin.

b) Espainiako herritarrak, Espainian izandako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerriri batean izan dutenak, bi urtetik gorako antzinatasunarekin, baldin eta atzerrira joan baldin badira aldi baterako, joan-etorri askearen eskubidea baliatuz joan direnak barne

c) Jatorrizko espainiarrak, Espainian izandako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerriri batean izan dutenak, bi urtetik gorako antzinatasunarekin, baldin eta egoitza finkatzeko asmoz Espainiara itzuli badira eta itzuli baino lehen Espainiako nazionalitatearen jabe badira.

Zioak: Erroldatuta emandako denbora kontuan hartu beharra dago. Bestela, ondorio berak izanen lituzke erroldatuta astebetetz edo hamar urtez egoiteak. Eta desabantaila izanen lukete Nafarroan erroldatuta eta bizi direnek, atzerrian erroldatuta daudenen aldean.

7. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Babes ofizialeko etxebizitzak talde hauetan sailkatzen dira: jabetza araubidean, errentamendu araubidean edo erosteko aukera duen araubidean.”

Zioak: Azken lerrokada kendu da, ez baitu inolako zentzurik jabetzaren aldeko apustua egiteak. Alokairua sustatu eta zaintzeko filosofiaren aurka doa.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Azken esaldia aldatuko da. Halatan, “prezio tasatuko etxebizitzak jabetza araubidean sailkatuko dira bakar-bakarrik” jartzen duen lekuan ondokoa jarriko du: “prezio tasatuko etxebizitzak jabetza araubidean eta alokairu araubidean sailkatuko ahalko dira.”

Zioak: Gaur egun, zenbait arrazoi direla medio, jabetza araubidearen lekua hartzen ari da alokairuarena. Hortaz, erraztasunak ematen ari gara herritarren sektore handi bati, etxebizitza bat lortu ahal izan dezaten alokairu araubidean.

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari beste idatz-zati bat, 4 bis), gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4 bis. Babes ofizialeko etxebizitza izanen dira orobat, ezaugarri eta baldintza berekikoak, landa eremuetan, 300 biztanle baino gutxiagoko udalengan, Pirinioko ibarretan eta Estellerriaren iparraldean eraikitzen direnak. Etxebizitza horiek bete beharreko ezaugarriak, tipologiak eta helburuak aintzat hartuta arautuko dira.”

Zioak: Ezaugarri berekiak aintzat hartzea komenigarria da, beharrezkoak diren konponbideak bilatzeko.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Azken esaldian, “hirugarren adinekoentzat, ezgaitasunen bat dutenentzat edo, beren ezaugarriak ikusita, halakotzat hartzea egokia den beste giza talde batzuentzat prestatuak” jarri ordez ondokoa jarriko du: “60 urte bete dituzten pertsonentzat, ezgaitasunen bat dutenentzat edo beren ezaugarriak ikusita, halakotzat hartzea egokia den beste giza talde batzuentzat prestatuak”

Zioak: Hirugarren adinaren kontzeptu generikoren barruan, babes publikoa jasotzeko 60 urteko gutxieneko adina zehaztea da asmoa.

14. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. 7. artikuluko 6. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“6. Babes publikoa izan dezakete, ezartzen diren ondorioetarako, banakakoen etxebizitzak eta talde baterako etxebizitzak tarteko bizitokiak, konparazio batera, ikasleen egoitzak, babespeko apartamentuak edo bizitoki lagunduak 60 urte bete dituzten pertsonentzat edo ezgaitasunen bat dutenentzat, edo ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitza independenterako edo beren ezaugarriak ikusita, halakotzat hartzea egokia den beste giza talde batzuentzat prestatuak”

Zioak: Pertsona gehiagok lortu ahal izatea etorkizuneko sustapenetan eraikitzen diren babespeko apartamentuak edo bizitoki lagunduak, eta etxebizitza bat lortzeko gutxieneko adina autonomia erkidego mugakideetako (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Errioxa) araudian ezarritakoa izatea.

9. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Prezio tasatuko etxebizitzaren azalera erabilgarria 90 metro koadrokoa edo hortik beherakoa izanen da, edo 120 metro koadrokoa, familia ugari-entzat baldin badira.”

Zioak: Familia ugarien beharrian berariazkoak alde batera utzita, ez dago justifikatuta azalera hain handiko etxebizitza babestuak egotea.

16. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluari beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. Etxebizitza babestuko bi tipologia kopuru bat gordeko da orobat, artikuluko honetan adierazitako azalera baino txikiagoak. Aukera horietan, etxebizitza txikiagoak, logela batekoak edo bikoak, eskatzen dituzten gizarte mailen eskariari eta beharriari hobeki erantzutea bilatuko da.”

Zioak: Aurrerabidea egin beharra dago arlo horretan; izan ere, eskaria egoteaz gain, etxebizitza eskuratzeko aukera errazten du.

10. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

17. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. 10. artikuluko 5. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“5. Moduluak urtero eguneratuko dira eta urtarilaren 1etik aurrera izanen dituzte ondorioak. Eguneratzeko, formula hau erabiliko da:

$$M' = M \times \{1 + (0,725 \times ICE + 0,275 \times IPC):100\}, \text{ non :}$$

M'= Modulu berria.

M= Aurreko moduluak.

EKI = eraikuntzako kostuen indizeak izaniko aldaketa portzentuala; horretarako, hilean hileko azkeneko azpi-indize ezagunak hartu eta aurreko urteko moduluak erabakitzeko ezagutu ziren azkenekoekin alderatuko dira. Kostu horietan eskulana, energia eta materialak sartuko dira.

EKI faktorea formula honen bidez aterako da:

$$EKI = 0,40 L + 0,10 E + 0,11 Z + 0,10 S + 0,10 Zr + 0,04 Eg + 0,15 KPI$$

Letrek adierazten dute urtean zer aldaketa portzentual izan duten zenbait prezioak. Hala, hau da letra horien esanahia: L, laneskua; E, energia; Z, zementua; S, produktu siderurgikoak; Zr, zeramikako materialak; eta Zr, zura. Gainerako materialak, 0,15 koefizientearen arabera ponderatu ondoren, aldi horretan kontsumoko prezioen indizeak urtean izan duen aldaketa portzentuala aplikatuko zaie.

KPI = Kontsumoko prezioen indize orokorrak izan duen aldaketa portzentuala; hain zuzen ere, ezagutzen den azkeneko hilabeteko indizearen eta aurreko urteko moduluak zehazteko baliatu zen azkenaren arteko aldea. Dena dela, ezagunak diren azkeneko hilabetei dagozkien EKI eta KPI faktoreak bat ez badatoz, bi faktore horiek ezagunak izan diren azkeneko hilabeteko ehunekoak hartuz egiten da kalkulua.”

Zioak: Hileko indize horiek Estatuko Administrazio Zentralak argitaratzen ditu, kronologia erregular bati jarraiki gabe.

Hori dela eta, urte bateko abenduaren 31n argitaratutako indizeak, esaterako, ekainekoak dira, hurrengo urteko abenduaren 31koak urrikoak dira, eta beste urte bateko abenduaren 31koak, berriz, otsailekoak. Hortaz, konparazioa aurreko hamabi hilabeteetako indizeekin eginez gero, urte batzuetan errepikatu egiten ziren aldiak, eta beste zenbaitetan ez ziren aldi batzuk aintzat hartuko.

Jardutako modu horrek nahi gabeko irregularitasunak ekar ditzake moduluaren balorazioa egiterakoan, baina urteko moduluak zehazteko ezagutu diren azken hilabeteak alderatuko balira beti, konpentsazio zehatza egiten litzateke epe ertainean, ez bailitzateke egonen aldi bat kontuan hartu gabe.

11. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari g) letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Alokairuzko etxebizitzaren banku publikoa sortzea.”

Zioak: Hori behar du lege honen helburu nagusietako bat.

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“11 bis. Lau urteko epean, alokairuzko etxebizitzaren banku publikoak 5.000 etxebizitzatik gora izanen ditu eskuragarri eta merkatuan.”

Zioak: Konpromisoa kopuruen bidez askoz ere hobeki zehazten da literatura hutsez baino.

12. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

20. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluari beste idatz-zati bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Alokairuzko araubidean 10 urte igaro ondorekin baliatuko da betiere erosteko aukera.”

Zioak: Alokairuzko ereduaren aldeko apustua orobat hartu behar da kontuan horiek jabetzapera igartzeko epeetan.

13. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

21. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatiari beste letra bat, f) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“f) Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak zerga-arinketa bidez diruz lagunduko die etxebizitzaren jabeak, baldin eta etxebizitza Gobernuaren esku uzten badute gizarte alokairurako. Zerga-arinketa hori eskatutako prezioaren arabera izanen da, ondoko taulari jarraikiz:

– Hileko 10 euroz gorako alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: 0 €.

– Hileko 10 euroko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: & 10eko zerga-arinketa.

– Hileko 9 euroko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: % 20ko zerga-arinketa.

– Hileko 8 euroko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: % 30eko zerga-arinketa.

– Hileko 7 euroko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: % 40ko zerga-arinketa.

– Hileko 6 euroko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: % 50eko zerga-arinketa.

– Hileko 5 euroko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: % 70eko zerga-arinketa.

– Hileko 4 euroko edo gutxiagoko alokairua etxebizitzako m² erabilgarri bakoitzeko: % 90eko zerga-arinketa.”

Zioak: Lehentasuna du hutsik dagoen etxebizitza gizarte alokairurako Administrazioaren esku uzteak.

22. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Ohiko etxebizitza erosteko hipoteka ordaintzeari ezin aurre egitearen ondorioz etxebizitza galtzen duten pertsonak, baldin eta etxebizitza haren prezioa BOE-en moduluaren bi halako baino gehiago ez bada, lehentasunezko eskubidea izanen dute alokairu-araubideko etxebizitza publiko bat eskuratzeko.”

Zioak: Egoera horiek aldezea lehentasunezko betebeharra da, eta halakotzat hartu behar da.

15. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. Pirinioko ibarretako, Estellerriaren iparraldeko eta 300 biztanle baino gutxiagoko herrietan, % 60ra bitarte finantzatuko da landa eremuetako etxebizitzak eta eraikin berekiak zaharberritzea, baldin eta helburua bada babes ofizialeko etxebizitza bihurtzea.

Prozesu horretatik ateratze diren etxebizitzek lege honetan ezarritako baldintzak beteko dituzte, esleipen sistemari eta bete beharreko baldintzei dagokienez.”

Zioak: Herriak orobat husten dira etxebizitza eskuratzeko zailtasunarengatik eta landa-parkearen tipologiarengatik.

16. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

24. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“d) Salmenta-prezioan edo errenta-sarian murrizketak edo deskontuak. Alokairuzko errenten kasuan, behar diren laguntza publikoak ziurtatuko dira, halako moduan non alokairuaren azken errenta ez den izanen pertsona onuradunen urteko aitorpenaren oinarri likidoko dirusarrera garbien % 30 baino handiagoa.”

Zioak: Alokairu publikoaren prezioen erreferentzia nagusia izan behar da pertsona onuradunen gaitasun ekonomiko ponderatua. Etxebizitza babestu baterako erabilitako dirua ez litzateke inolaz ere izan beharko norberak eskuragarri duenaren % 30 baino gehiago.

25. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Zailtasun objektiboak dituzten pertsona onuradunei ezarritako hipoteka-kredituak emateko abalak eta bermeak, baldin eta finantza-entitateek ez badiete krediturik ematen.”

Zioak: Esku-hartze publikoko modu hori jaso beharra dago etxebizitza babestuko jarduketaren katalogoan.

26. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat, h) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“h) Luzamenduen gaineko bermea eta baime-na hipoteka-kredituen ordainketan, baldin eta zailtasun objektiboa baldin badago, esaterako krisi ekonomikoaren eraginez; hartara, arazoak gainditutakoan ekin ahalko zaio berriz maileguak ordaintzeari.”

Zioak: Esku-hartze publikoko modu hori jaso beharra dago etxebizitza babestuko jarduketaren katalogoan.

17. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

27. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“7. Etxebizitzaren eskuratzailerak, esleipen-hartzaileak, norberak erabiltzeko gordetzen duen sustatzaileak, errentariak edo onuradunak bizileku-baimena izatea, agiri hori eskatu behar den kasuetan, eta Nafarroako udalerrri batean erroldatuta egotea, hiru urteko antzintasunarekin.

Atzerrian bizi diren nafar egoiliarrek, Espainian egindako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerrri batean egin bazuten, hiru urteko antzintasunarekin, ez dute erroldatzearen gaineko betebeharrak izan beharko.”

Zioak: Ez da gauza bera eroldan astebete edo hamar urte egotea.

18. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

28. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Etxebizitzaren hartzaileen familiaren diru-sarrera ponderatuak Ondorio Askotarako Errenta-Adierazle Publikoa (IPREM) halako 3,5etik beherakoak izatea eta erregelamenduz ezartzen den kopurutik gorakoak.”

Zioak: Babes publikoko etxebizitzak erosahalten txikiagoko pertsonentzat izan behar dute.

29. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Etxebizitzaren hartzaileen familiaren diru-sarrera ponderatuak Ondorio Askotarako Errenta-Adierazle Publikoa (IPREM) halako 4,5etik beherakoak izatea eta erregelamenduz ezartzen den kopurutik gorakoak.”

Zioak: Ondorio Askotarako Errenta-Adierazle Publikoa (IPREM) halako 6,5 gaitasun ekonomiko handiegia da etxebizitza babestu bat eskuratzeko.

19. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

30. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“a) Esleipen prozesua egin ondoren, Zentsuan inskribaturik dauden eskatzaileen kopurua esleitu beharreko etxebizitza babestuen baina txikiagoa den sustapenetan, etxebizitza guztien edo batzuen esleipena hutsik gelditu dela adierazten denetik sei hilabete igaro ondoren, (...)”

Zioak: Hiruhileko epea motzegia da etxebizitza babestu bat eskaini, esleitu eta emakida baieztatzeko prozeduretarako.

20. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

31. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Titulartasun publikoko lurretan gazteentzat bereziki egiten diren sustapenetan esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko gehieneko adina 32 urtekoa izanen da.”

Zioak: Gazteen adina zehaztuta uztea komeni da.

32. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 3. idatz-zatiari beste letra bat, i) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“i) Lan istripuetan hildako pertsonen mende dauden familiartekoak”

Zioak: Tratamendu hori merezi dute gertakari zeharo lazarri horretatik heldu den egoeran daudenek.

33. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 3. idatz-zatiko h) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hor ezarritakoa ez da bidezkoa, eta mesedezko tratua ekar lezake. Esleipen sistemen filosofia hausten du.

34. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 3. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. idatz-zati honetan ezarritako erreserben onuradun guztiek bete beharreko baldintza da ez izatea bizitzeko egokia den etxebizitza baten jabe ez izatea eta haren dirusarrerak Ondorio Askotarako Errenta-Adierazle Publikoa (IPREM) halako 6,5etik beherakoak izatea.”

Zioak: Erreserba horiek gorabehera, zenbait baldintza bete behar dira.

23. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

35. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letrak aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Familiaren diru-sarrera ponderatuak eskatzen den gutxieneko diru kopurutik Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (IPREM) halako 3,5 bitarte dituzten eskatzaileentzat. Babes ofizialeko etxebizitza guztiak esleitu ahalko zaizkie, baldin eta eman gabe gelditzen badira, prezio tasatuko etxebizitzetakoa baino errenta tarte handiagoei.

b) Familiaren diru-sarrera ponderatuak Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (IPREM) halako 3,5etik gorakoak dituzten eskatzaileentzat.”

Zioak: Ez du ematen logikoa denik babes ofizialeko etxebizitzaren ehuneko bat erreserbatzea prezio tasaturako eskatzen diren errentak gaintzen dituztenei, edo alderantziz.

24. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

36. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“c) Bost puntu Alokairuaren Sistema Publikoaren barrenean etxebizitzaren errentamendu kontratua idatziz eta legez formalizatua izateagatik”

Zioak: Hamar puntu gehiegi da, kontzeptu nagusia ez den batean.

37. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Hamar puntu, familia-emantzipazioaren adinean egoteagatik. Familiaren bizilekuan bizi behar du, eta 25 eta 32 urte bitarte eduki.”

Zioak: Gazteen familia-emantzipazioa eta –independentzia baremoan aintzat hartu beharreko helburua da.

38. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tributuen arloko betebeharre aurre egitea baldintza izan daite, baina sekula ere ez saria.

39. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluari beste idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“5. Bi puntu, eskatzaileen zentsuan emandako urte bakoitzeko. Barematzeko unean eginen da puntuazioa hori, etenik gabeko aldia kontuan hartuta. Zentsutik ez-betetzeagatik irteteak ez du aurreko aldiak zenbatzeko eskubiderik emanen.”

Zioak: Zentsu bakarrera pasatzekotan, bertan egon beharra eta gaurkotu beharra barne, logikoa da puntuak ematea zentsuan egoteagatik.

27. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Idatz-zati bat, 5.a, gehitzea 27. artikuluari; hartara, 5., 6. eta 7. idatz-zatiak 6.a, 7.a eta 8.a izanen dira. Hona testua:

“Kooperatibak eratu ahalko dituzte zentsuan sartuta dauden onuradun esleipen-hartzaileek. Kooperatibek ez dute izanen irabazi asmorik, eta laguntza- edo gizarte-entitateei nahiz sindikatuei loturik egon ahalko dira, baldin eta esperientzia dutela frogatzen badute, sustapenen bideragarritasuna eta izan litzaketen erantzukizun ekonomikoak ziurtatzen badituzte”

Zioak: Balizko erosleei etxebizitzak autosustatzeko aukera ziurtatzea, irabazi asmorik gabeko kooperatiben sistema baliatuta.

28. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

41. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa. 28. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“3. Eskatzaileen Zentsutik baztertua izanez gero, eskatzaileak ezin izanen du berriz izena eman gutxienez hiru hilabete igaro arte, salbu eta foru lege honetako 30. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran ezarritako kasuan”

Zioak: Proiektuko 30.1.a) artikuluan zentsutik baztertzeko arrazoi gisa jasotzen da eskatzaileak berariaz eskatzea, eta ez du zentzurik hiru hilabeterekin zigortzea zentsuan bere borondatez baja hartzen dutenak ez zaielako sustapen jakin bat interesatzen; aitzitik, altak eta bajak hartzeko sistema bat jarri beharko litzateke, etxebizitza babestuen esleipena herritarren lehentasunen arabera egin dadin.

42. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondokoa gehituko da 3. idatz-zatiaren amaieran: “salbu eta foru lege honetako 30. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran ezarritako kasuan”

Zioak: Asmoa ez da zigortzea, ezpada altak edo bajak hartzeko sistema erraztea, eskatutako etxebizitzaren tipologia eta eskatzailearen lehentasunak doitze aldera.

31. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

43. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluari beste idatz-zati bat, 9.a, gehitze-ko zuzenketa. Hona testua:

“9. Etxebizitza babestua esleitzeko prozesuan, ahal den neurrian, aintzat hartuko dira etxebizitza eskatzailea errotuta dagoen eskualdean egotera bideratutako jarduketak.”

Zioak: Komeni da hori kontuan hartzea; izan ere, eskatzaileek bere herrietan edo auzoetan errotuta egotea balioesten dute, eta bertan bizitzen jarraitu nahi dute.

32. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

44. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

32. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehitze-ko zuzenketa. Hona testua:

“3. Departamentu edo enpresa publiko eskudunak kontrolatu eta ziurtatuko du lege honetan xedatuarekin bat egiten dela etxebizitza babestuen baremazio eta esleipen prozesua.”

Zioak: Administrazioak, beste edozein prozeduratik haratago, baremo bakarra behar bezala eta zuzen aplikatzen dela bermatu behar du.

35. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

45. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

35. artikulua aldatzeko zuzenketa. 35. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“4. Nafarroako Gobernuak etxebizitzak zaharberritzeko jarduketa normalizatuak bultzatu eta sustatuko ditu eta, orobat (...)”

Zioak: Legean nabarmendu beharra dago zaharberritzeko jarduketei babesa ematearen

garrantzia, bai arkitektura-ondarea nahiz herrietako eta hirietako diseinua eta funtzionaltasuna hobetzea dakartelako bai enplegua sortzen dutelako.

46. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

35. artikulua aldatzeko zuzenketa. 4. idatz-zatiaren hasieran, "Nafarroako Gobernuak etxebizitzak zaharberritzeko jarduketa normalizatuak bulztatu eta sustatuko ditu" jarriko du.

Zioak: Nafarroako Gobernuak konpromiso zehatzagoa hartzea nahi dugu, energia-efizientzia areagotzeko zaharberritzeak egin daitezten etxebizitzak eraikinetan.

47. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluari beste idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"5. Etxebizitzak zaharberritzearen helburu nagusien artean dago, sarbideak gaituz eta igogailuak eta behar diren neurri guztiak jarriz, mugikortasuna ziurtatzea, bereziki mugikortasuna edo gaitasuna murriztuta duten pertsonena.

Gobernuak, lau hilabeteko epean, erregelamendu bidez arautuko ditu helburu hori ziurtatzeko aldera gune pribatuen okupazioari dagokioneko beharrezkoak diren jarduketa guztien ebazpena, desjabetzea eta okupazioa erraztera bideratuak."

Zioak: Berariaz jaso eta konprometitu behar da irisgarritasunaren helburu hori.

43. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

48. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

43. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

"Oro har, salerosteko nahiz errentamendurako eraikitako etxebizitza babestuen araubideak etxebizitza babestuaren izaera izanen du modu iraunkorrean. Etxebizitza babestuen deskalifikaziorik ez da onartuko, salbu eta foru lege honen 33. artikuluan aurreikusitako kasuetan."

49. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

43. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

"Errentamendu araubidean kalifikatu eta eraikitako babes ofizialeko etxebizitzak errentamendu-araubidearen iraupena hamabost urtekoa izanen da, behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita. Etxebizitza babestuaren araubidea iraunkorra izanen da."

47. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

50. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

"d) Ezin da trukearekin egin trukearen xedeko etxebizitzak behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita bost urte igaro arte."

Zioak: Hiru urte gutxiegi da.

55. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

51. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55. artikuluari beste idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"5. Ezarritako baldintza eta agiri guztiak aurkeztu ondotik, udalak sei hilabeteko epea izanen du eskari horren onura publikoaren aldeko edo kontrako deklarazioa egiteko.

Onura publikoaren deklarazioak kasuko gunea berehala okupatzea ekarriko du, egin beharreko jarduketa egin ahal izate aldera.”

Zioak: Arazo handienetako bat da gune pribatu bat okupatu ahal izan arte igarotzen dena. Bitartea, mugikortasun murriztuko pertsonak ondorioak pairatzen dituzte.

72. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

52. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

72. artikuluari beste idatz-zati bat, 6.a, gehitze-ko zuzenketa. Hona testua:

“6. Departamentu eskudunak, udalekin lankidetzan, erregelamendu bidezko garapena eginen du sei hilabeteko epean, karga-tasa eta hori aplikatzeko neurriak barne”

Zioak: Alferrik dira kontrola eta zentsua, ez baldin badira abian jartzen zigor-neurriak.

XEDAPENEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

53. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Eskuratzailen edo errentarien diru-sarrera ponderatuak ez izatea IPREM adierazlea halako 4,5 baino handiagoak, (...)”

Zioak: Zenbatekoak gehiegizkoak dira, asegabe baldin badauden gaitasun ekonomiko gutxiko gizarte taldeen beharrianak etxebizitza babestuen arloan.

54. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa. Azken xedapenetako leheneko 2. idatz-zatian ondokoa kenduko da: “betiere halakorik ezartzen

duen lurralde-plangintzako tresnaren baten determinazio loteslerik ez bada”

Zioak: Helburua da udal txikiei erraztea populazio-gune horietan beharrezkoak diren etxebizitzentzako tipologia eta exekuzioa.

55. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Ondokoa gehituko da laugarren xedapen gehigarriaren amaieran: “babes ofizialeko etxebizitzentzako kasuan, eta bi prezio tasatuko etxebizitzentzako kasuan”

Zioak: Beharrian hori dutenei bi garaje-plaza izateko aukera ematea, prezio tasatuko etxebizitzentzako, herritarren benetako beharrianekin bat.

56. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

57. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Neurria aldi baterako indarrean da dagoeneko, Hirigintza eta Etxebizitza arloko Presako Neurriei buruzko 6/2009 Foru Legearen bidez, eta ez du ematen komeni denik neurri hori behin betikoa izan dadin; izan ere, lursailen eta urbanizazioaren prezioa liberatzeak berekin ekar lezake lursailen prezioa igotzea edo etxebizitza babestuen eraikuntzaren kalitatea aldatzea.

58. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Neurria indarrean da jadanik, aldi bate-rako bada ere, Hirigintza eta Etxebizitzaren arloko Urgentziazko Neurriak Hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen bidez. Xedea da sustatzai-leei babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze-ko aukera ematea etxebizitza babestuen salmentako gehieneko prezioan, nahiz eta, berez, bateraezi-nak izan lursail horien prezio altua eta urbaniza-zioaren eta lurraren prezioari jarritako muga.

Halere, ez du ematen arrazoizkoa denik neu-rria behin betikotzat hartzea; izan ere, lurraren eta urbanizazioaren prezioaren "liberalizazioak" lursai-len salmenta prezioa igotzea ekar lezake, bai eta etxebizitza babestuen eraikuntzaren kalitatea gal-zea ere.

59. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian, "Nafarroan Etxebizitzari Babes Publikoa Emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeak indarra hartu aurretik" jarri orde z ondokoa jarriko du: "foru lege honek indarra hartu aurretik".

Zioak: Hirurogei urtetik gorakoek alokairuko etxebizitza lortu ahal izatea.

60. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

"65 urtetik" jarri orde z "60 urtetik" jarriko du bosgarren xedapen iragankorreko lehen idatz-zati-ko a) letran.

Zioak: Hirurogei urtetik gorakoek alokairuko etxebizitza lortu ahal izatea.

61. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bosgarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Bosgarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatiko a) letra aldatuko da. Hona testua:

"1. 65 urtetik gorakoei alokatzeko diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan parte hartze-ko baldintzak, haien behin-behineko kalifikazioa foru lege honek indarra hartu aurretik eskatua bal-din badago, hauexek izanen dira bakarrik:

a) Familia unitate errentariko kide batek gutxie-nez 60 urte izatea".

Zioak: Pertsona gehiagok lortu ahal izatea halako etxebizitzak, eta etxebizitza bat lortzeko gutxieneko adina autonomia erkidego mugakidee-tako (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Errioxa) araudian ezarritakoa izatea.

62. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zati-ko b) eta d) letrak aldatzeko zuzenketa. Hona tes-tua:

"b) Errentariaren familiaren diru-sarrera ponde-ratuak ez izatea IPREM adierazlea halako 2,5 edo 4,5, (...)"

Zioak: Zenbatekoak gehiegizkoak dira, ase gabe baldin badauden gaitasun ekonomiko gutxiko gizarte taldeen beharizanak etxebizitza babestua-ren arloan.

63. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzen-keta. Hona testua:

"Hamaikagarren xedapen gehigarria. Alokairu-araubideko sustapenen errentamendu-kontratuen araubide iragankorra, behin betiko kalifikazioa Hiri-gintza eta Etxebizitza arloko Presako Neurriei buruzko 6/2009 Foru Legea indarrean sartu aurre-tik lortu dutenena".

Behin betiko kalifikazioa Hirigintza eta Etxebizi-tza arloko Presako Neurriei buruzko 6/2009 Foru Legea indarrean sartu aurretik lortu duten alokai-ru-araubideko sustapenetan sinatu diren edo sina-tzen diren errentamendu-kontratuek behin betiko kalifikazioaren unean indarrean ziren araudiari eta baldintzei lotuko zaizkie".

Zioak: Xedea da sustapen horiek une hartan indarrean ziren baldintzetan jarraitzea eta presako neurriei buruzko legeak haiei ez eragitea.

64. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen iragankor bat, hamaikagarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko epean eratuko du Nafarroako Alokairuaren Agentzia, Vinsa enpresa publikoaren mende egonen baita ondorio guztietarako.”

Zioak: Epe luzerako da alokairuaren aldeko apustua, etxebizitza eskuratzeko eskubidea ziurtatzeko aukera den aldetik. Estrategikoa izan behar du, eta administrazio publikoek egon behar dute haren buru.

65. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzaile bakarrari letra bat, e) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“e) Hirigintza eta Etxebizitzaren arloko Urgentziazko Neurriak Hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legea, 10. artikuluari (prezio mugatuko etxebizitza libreen tipologia berria), etxebizitza horien salbuespen fiskalei eta abian diren sustapenen eraikigarritasun gehikuntzei dagokienez.”

Zioak: Etxebizitzaren eskuragarritasunaren bilakaerari dagokionez inolako hobekuntzarik ekarri ez duten neurri indardunak indargabetu behar dira.

66. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan leheneko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Plan orokorrek edo plan partzialen aldaketa berriek babes publikoko etxebizitzaren etxebizitzetarako ahalmenaren % 7 jaso beharko dute gutxienez ere.

Aurrekoa gorabehera, jarduketa bat objektiboki bidegabe dela justifikatzen bada, ehuneko hori %50era jaisten ahalko da.”

Zioak: Irizpide orokor gisa, etorkizuneko jarduketetan % 70a izan behar du kontuan hartu beharreko erreferentzia.

67. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetatik leheneko 2. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Herri txikiak salbuestea da etxebizitza babesturik ez egotearen arrazoietakoa bat. Gertakari horrek areagotu egiten du landa eremuetatik alde egitea. Etxebizitza babestuen eskaintzak bizitoki berriak sustatuko litzuke.

68. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako lehenari idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. Babes publikoko etxebizitzarako ezarritako ehunekoetan, etxebizitza horietako % 25 izanen da, gutxienez ere, alokairuko araubidekoa.”

Zioak: Neurri eta konpromiso argiak ezarri beharra dago, alokairuaren aukera egiazkoa eta sinesgarria izan dadin etxebizitza eskuratzeko eskubidea ziurtatzeko.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2010eko martxoaren 18an eta 25ean eginiko bilertan onetsia.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren testua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esku geratu ziren Foru Komunitateko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen arloko eginkizun eta zerbitzuak.

Ondoren, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu zuenak, zera ezarri zuen zortzigarren xedapen gehigarrian: "Foru lege honek Justiziako Administrazioaren zerbitzuko kidegoetako karrerako funtzionarioei buruz dituen xedapenak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dira, Konstituzioaren 122. artikuluan eta lehengo xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz." Xedapen horrek berretsi eta bermatu egiten du Nafarroako Foru Komunitateak funtzio publikoaren arloan dituen eskumen historikoen erabilera.

Konstituzio Auzitegiak irailaren 20an emandako 140/1990 epaian aitortu zuen Nafarroako Foru

Komunitateak funtzionario publikoen gainean arauak emateko eskumen osoa duela; muga bakarra oinarrizko eskubide eta betebeharrak errespetatzea da: "(...) Estatuak funtzionario publikoen estatutu araubidearen gainean ematen dituen oinarrizko legeen aurreikuspen guztiek ez dute eskumenaren erabilera mugatuko; «oinarrizko eskubide eta betebeharrak» buruzkoek baino ez dute eginen." Horregatik, lege arau honek Nafarroan Justizia Administrazioari atxikitako funtzionarioen lan baldintzen araudia babesten du –horren bidez guztiz sartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan–, eta saihestu egiten du funtzionario horien araubidea osatzeko ematen ahalko diren lege horren mailatik beherako arauak zuzenbidearen arabera ote diren jakiteko zalantzak sortzea etorkizunean, horrelako arauak inpugnazioak eragin baitzituzten alde aurretik auzitegiatan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak ordezkatzeko dituzten erakunde sindikalek 2006an sinatutako akordioan aurreikusten zen Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak foru lege baten aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztuko zuela, erakunde sindikal sinatzaileekin negoziatzeko; hartan planteatuko zen Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan sartzea, betiere Justiziako zerbitzu publikoa behar bezala emateko espezifikotasunak barnean hartuz. Aipatutako zirriborroa aurkeztu zen eta erakunde sindikalek bermatu zuten; dena dela, erakunde sindikalek zenbait xehetasun zuzendu zituzten, testuan sartu direnak.

Foru legearen helburua da, funtsean, titulu berri bat, VI.a, gehitzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginari, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua aplikatu ahal izateko beste kidego batzuetako langileei, langile horien kidego nazionalen izaeraren eta Justiziako zerbitzu publikoa ematearen ondoriozko salbuespenak salbu. Horra zein diren kidego horiek: Auzitegiko Medikuen Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoa eta Laguntza Judizialeko Kidegoa. Aldez aurretik, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen

Estatutuaren testuategina egoera berrira egokitu da, behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren aurreikuspenak eginez. Horrela, langile batzorde bat eta negoziazio kolektiboko mahai sektorial bat aurreikusten ditu, Administrazioaren beraren berriazko beste talde batzuen modura.

VI. titulu berriari dagokionez, berriz, hamaika artikulutan zehar garatzen da Nafarroako Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren aplikazioa, kidego nazionalekoak diren aldetik dituzten ezaugarriekiko errespetu osoarekin.

Lehenik, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileria osatzen duten kidego eta eskalen Estatutu Juridikoa definitzen da, Botere Judizialaren Lege Organikoan bildu eta Justiziako zerbitzu publikoa eraginkortasunez eta egoki emateko berez behar diren oinarriko eskubide eta betebeharrak guztiz errespetatuz.

Beste alde batetik, foru legeak ezartzen du Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen jardueraren antolamendua Estatuko legeek arautzen jarraitzea, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren II. tituluko V. kapituluaren ezarritakoari utzi gabe. Lege testua etorkizuneko foru lege bati lotuko zaio, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen antolamendua, hautapena, barne sustapena eta betetzea arautzeko; eta, legezko arau hori argitaratu arte, lanpostuak kidego eta eskaletan antolatzea, hautapena eta lanpostuak betetzea unean-unean indarra duten Estatuko xedapenek arautuko dituzte.

Adierazten du, halaber, langile horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan justizia arloan eskumena duen departamentuaren mende egonen direla organikoki; dena dela, funtzionarioak zein bulego edo zerbitzuri atxikita dauden, hartako zuzendari edo buruaren mende egonen dira funtzionalki.

Foru legeak Nafarroako Gobernuari eta Foru Komunitateko Administrazioari esleitzen die lan publikoaren eskaintza eta Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetan sartzeko deialdiak hasiera batean onesteko ahalmena.

Kidegoek Estatuan zein kanpoan mugitzeko duten aukerari utzi gabe eta Estatuko prozesuekin behar bezalako koordinazioa bermatuz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hutsik dauden lanpostuak betetzeko barne mugikortasuneko prozesuak deitzeko ahalmena du. Halaber, zerbitzua ahalik hobekien emateko behar diren langileak birbanatu, berrantolatu eta birkokatze prozesuak egiteko ahalmena du, betiere horretarako onesten den araudia betez.

Foru legeak osagarri bat ezartzen du, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek beren eginkizunetan jartzen dituzten dedikazio bereziaren eta errendimendu apartekoaren eta beste organo judizial batzuei ematen dieten laguntzaren ordain gisa. Osagarri hori aldi baterako izanen da, kasu bakoitzean ezarritako plangintza eta helburuekin bat.

Justiziako zerbitzu publikoa emateko berezko salbuespenak salbu, Nafarroako Justizia Administrazioako langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileentzat oro har onesten diren lan egutegia eta lanaldia izanen dituzte, guardia zerbitzua arautzen duen berriazko araudia zorrozki betetzeari utzi gabe.

Foru legeak arautzen du Justizia Administrazioaren esparruko lanpostuak aldi baterako nola bete, administrazio araubideko kontratazioaren bidez.

Xedapen gehigarri bakarrak konpentsazio pertsonal eta iragankorra ezartzen du, aurreko araubideari jarraikiz guztira jasotzen zituzten ordainsariak foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak baino handiagoak hartzen dituztenentzat.

Halaber, hirugarren xedapen iragankorrean, foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Justizia Administrazioan lanean ari diren aldi baterako funtzionarioei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen da.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina aldatzea.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina aldatu eta honelaxe geldituko da:

Bat. 82. artikuluan 1. idatz-zatiaren azkeneko errolda aldatu eta honela geldituko da idatzita:

“Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan hiru langile batzorde hautatuko dira: bat, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioentzat; beste bat, Justiziako Administrazioaren zerbitzuko langileentzat; eta beste bat, Administrazioaren zerbitzuko gainerako funtzionarioentzat.”

Bi. e) letra erantsiko zaio 83.3 artikuluari. Hauxe adieraziko du:

“e) Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak.”

Hiru. VI. titulua gehituko da. Hauxe esanen du:

“VI. TITULUA

Nafarroako Justizia Administrazioaren
zerbitzuko langileak

109. artikulua.

1. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko Auzitegiko Medikuen Kidegoko eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidego eta eskaletako langileei Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutua aplikatuko zaie.

2. Edonola ere, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen araubide juridikoak Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan bildutako funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuko ditu eta bereziki errespetatuko du lege horretan jasotako kidego nazionalen izaera.

110. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen kidego eta eskalen antolamendua, hautapena, barne sustapena eta betetzea foru lege bidez arautuko dira, Botere Judizialaren Lege Organikoak langile horientzat ezarritako estatutu juridikoa errespetatuta.

111. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak justizia arloan eskumenak dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Departamentuaren mende egonen dira organikoki, eta langileak zein bulego edo zerbitzuri atxikita dauden, hartako zuzendari edo buruaren mende, funtzionalki.

112. artikulua.

Estatuko araudiak arautuko du Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen jardueira profesionalaren antolamendua.

113. artikulua.

1. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko lan publikoaren eskaintza Nafarroako Gobernuak onetsiko du hasiera batean, eta, kasua bada, Justizia Ministerioari igorriko zaio, hark behin betikoz onetsi dezan.

2. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetan sartzeko deialdiak organo eskudunak onetsiko ditu, 110. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3. Ondorio horietarako, justizia arloko eskumenak dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio

Departamentuak Justizia Ministerioarekin koordinatzeko beharrezkoak diren tresnak antolatuko ditu.

4. Justizia Ministerioak egingen du karrerako funtzionarioen izendapena, justizia arloko eskumena esleitu duen Foru Komunitateko Administrazio departamentuak proposatuta.

114. artikulua.

1. Mugikortasun nazionalari kalterik egin gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere funtzionarioak mugitzeko prozesuak deitzen ahalko ditu, Nafarroako Justizia Administrazio bulego eta zerbitzuei atxikitako lanpostuak betetzeko.

2. Mugikortasun prozesu horiek garatzean, esparru nazionalako prozesuekiko koordinazioa bermatuko da, destinoak esleitzeko.

3. Langileak nahitaez birbanatu, berrantolatu eta birkokatzeko prozesuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lurraldeka multzokatzeko ahalko ditu lanpostuak, zerbitzuko premietara ahalik eta hobekien egokitzeko.

4. Nafarroako Justizia Administrazio funtzionarioek Nafarroako Foru Komunitatean Justizia Administrazioetik kanpoko lanpostuak eskuratzen ahalko dituzte, estatutu honen II. tituluko IV. eta VII. kapituluetan ezarritakoarekin bat. Lanpostu horietan dauden bitartean, horien araubide juridikoari eta ordainsari-araubide berekiari lotuko zaizkie, eta estatutu honetako VI. kapituluaren araututakoa izanen da jatorrizko lanpostuaren administrazio-egoera.

115. artikulua.

1. Estatutu honetan ezarritako ordainsari osagarri gain, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek osagarri bat eskuratzen ahalko dute, beren eginkizunetan jarritako dedikazio bereziaren, errendimendu apartekoaren eta beste organo judizial batzuei emandako laguntzaren ordain gisa, arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak ezarritako helburuak beteazari loturik.

2. Osagarri horren zenbatekoak ezin izanen du kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 20 gainditu.

3. Osagarri horren esleipena aldi baterako izanen da, kasu bakoitzean alde aurretik ezartzen diren helburuak eta plangintza kontuan hartuta. Hori dela eta, kontzeptu horrengatik aldi baterako jasotzen diren zenbatekoek ez dute eskubide lorturik sortuko eta ez dute hurrengo aldietako egoeran eraginik izanen.

116. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lan egutegia eta lanaldia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileenetara egokituko dira, Justiziako zerbitzu publikoa emateko egin beharreko ezinbesteko aldaketak eginda.

117. artikulua.

1. Nafarroako bulego eta zerbitzu judizialeko guardia zerbitzua berariazko araudian zehaztutako baldintzetan eginen da.

2. Guardia zerbitzuari dagokion ordainsaria Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organo eskudunek finkatuko dute.

118. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioek Mutualitate Orokor Judizialak osatutako gizarte aurreikuspeneko araubidean jarraituko dute.

119. artikulua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak administrazio araubidean kontratatzen ahalko ditu aldi baterako langileak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen premia behar bezala justifikatuei erantzuteko, baldin eta horiei aurre egiteko langile finko aski ez dagoela egiaztatzen bada, estatutu honetako IV. tituluko I. kapituluaren ezarritakoarekin bat."

Xedapen gehigarri bakarra. Mailak eta ordainsari osagarriak.

1. Nafarroako Gobernuak, kasuko foru dekretuaren bidez, langile horiei esleituko dizkie dagozkien ordainsari osagarriak, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

2. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek konpentsazio pertsonal eta iragankorra jasoko dute, dagoen diferentziaren arabera, baldin eta aurreko araubideari jarraikiz urtean guztira jasotzen zituzten ordainsariek foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak gainditzen badituzte. Konpentsazio hori haien ordainsarietan gertatzen den edozein gehitzeren bidez xur-

gatuko da; horien artean espresuki sartuko dira haien ordainsari pertsonalei lotutakoak eta oro har onesten diren ordainsari gaurkotzeak.

Lehen xedapen iragankorra. Lanpostuen kidego eta eskalak, hautaketa eta betetzea.

110. artikuluan aipatutako foru legea onesten ez den bitartean, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen kidego eta eskalen antolamendua, hautaketa eta betetzea Estatuko unean uneko xedapen indardunek arautuko dituzte.

Bigarren xedapen iragankorra. Guardia zerbitzuagatiko ordainsaria.

Guardia zerbitzuagatiko ordainsaria 117. artikuluan adierazi bezala arautzen ez den bitartean, Estatuko araudiari lotuko zaio.

Hirugarren xedapen iragankorra. Bitarteko funtzionarioak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruko langileek, legeak indarra hartzean Nafarroako Justizia Administrazioan bitarteko funtzionario gisa lanean ari badira, "iraungitzeko" izaerari eutsiko diote, izendatu zituzteneko data arte edo, bestela, egun-egun izendapena eragin zuen beharrak dirauen arte.

2. Bitarteko funtzionario izaera mantentzen duten bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio araubidean aldi baterako kontratatutako langileentzat legez eta erregelamenduz finkatutako ordainsariak eta gainerako lan baldintzak aplikatuko zaizkie, foru lege honen xedapen gehigarri bakarreko 2. idatz-zatian aipatutako konpentsazio pertsonal eta iragankorra barne (jasotzen zituzten ordainsariek foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak gainditzen dituztenen kasuan).

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Dena dela, Justiziako zerbitzu publikoaren behar bezalako funtzionamendua ziurtatze aldera, aldi baterako mantenduko dira ezarritako lanaldia, ordutegiak, oporrak eta baimenak, legeak indarra hartzen duen urte naturala amaitu arte.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Artaxoako eta Mendigorriko eskoletan D eredua ezartzeko beharrizanei buruz.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Artaxoako eta Mendigorriko eskoletan D eredua ezartzeko beharrizanei buruz"

Legebiltzareko Hezkuntza Batzordeak 2010eko martxoaren 26an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2006-2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006-2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2006-2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Txosten exekutibo edo laburpena (23. or.).

Sarrera (24. or.).

I. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (24. or.).

I.1 Izaera juridikoa eta helburuak (24. or.).

I.2 Gobernu-organoak (24. or.).

I.3 Irakaskuntzaren antolaketa (24. or.).

I.4 Administrazioaren antolaketa (25. or.).

I.5 Mendeko Erakundeak (25. or.).

I.6 Ekonomia- eta finantza-, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea (26. or.).

I.7 Plan estrategikoa (26. or.).

I.8 Araudia (26. or.).

II. Helburua (27. or.).

III. Lanaren norainokoa (27. or.).

IV. Iritzia (27. or.).

IV.1 Nafarroako Unibertsitate Publikoa (27. or.).

IV.2 Unibertsitate-Gizarte Fundazioa (27. or.).

IV.3 Unibertsitatearen ekonomia- eta finantza-egoera (27. or.).

IV.4 Gomendioak betetzea (29. or.).

V. Unibertsitatearen eta Fundazioaren 2007. ekitaldiko urteko kontuak (30. or.).

VI. Unibertsitatearen erregularitasun-auditoriaren ondorioak eta gomendioak (37. or.).

VI.1 2007ko aurrekontua eta urteko kontuak (37. or.).

VI.2 Barne-kontrola (37. or.).

VI.3 Aurrekontuaren likidazioa (37. or.).

VI.3.1 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk (38. or.).

VI.3.2. Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak (39. or.).

VI.3.3 Langile-gastuak (40. or.).

VI.3.4 Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak (41. or.).

VI.3.5 Transferentzia arruntetako gastuak (42. or.).

VI.3.6 Inbertsioak (43. or.).

VI.4 Ikerketa (45. or.).

VI.5 Ibilgetu ez-finantzarioa (48. or.).

VI.6 Diruzaintza eta aldi baterako finantza-inbertsioak (48. or.).

VI.7 2005-2008 plan estrategikoa (49. or.).

VII. Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren legeztatunaren eta Unibertsitateak esleitzen dizkion jardueren auditoriaren ondorioak eta gomendioak (50. or.).

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektore Magnifikoak behin-behineko txostenari egindako alegazioak (52. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (54. or.).

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa Nafarroako Parlamentuak 1987an sortutako zuzenbide publiko erakunde bat da, nortasun juridikoa eta berezko ondarea dauzkana, eta Nafarroan goimailako hezkuntza-zerbitzu publikoa ematen duena ikerketaren, irakaskuntzaren eta ikasketaren bidez.

Unibertsitateak Unibertsitate-Gizarte Fundazioa sortu zuen 1996. urtean, 24.040 euroko dirukopuruarekin sortu ere, elkarrizketa sustatzeko eta Unibertsitatearen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetzaz bideratzeko.

2007ko ekitaldiari dagokion Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantza-auditoria egin dugu, bai eta 2006ko eta 2007ko urteei dagokien Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren legezketasunarena ere, eta iritzi hau eman dugu:

- Unibertsitatea:

Unibertsitatearen 2007. urteko kontuek honako hauen irudi zehatza ematen dute haien alderdi adierazgarri guztietan: 2007ko abenduaren 31ko ondarearena eta finantza-egoerarena; 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioarena; eta data horretako ekonomia- eta ondare-emaitzarena. Nahikoa eta beharrezkoa den informazioa ere jasotzen dute haiek behar bezala interpretatu eta ulertzeko, aplikagarriak diren kontabilitate-printzipio eta -arau publikoei jarraikiz.

2006. eta 2007. urteetan, Unibertsitatearen finantza-jarduera, oro har, legezketasun-printzipioaren arabera garatu da.

- Unibertsitate-Gizarte Fundazioa:

Fundazioak, orokorrean, indarreko legedia bete du 2006. eta 2007. urteetan langileen aukeraketari eta administrazio-kontratazioari dagokienez.

2007. urtean, Unibertsitatearen aitortutako eskubideak 83,61 milioi eurokoak izan ziren, eta gastuak 75,7 milioi eurokoak. Gastuen ehuneko 78 Nafarroako Gobernuarekin izenpetutako finantzaketa-hitzarmenean adierazitako ekarpenen bidez finantzatu da.

Unibertsitateak, 2007ko abenduaren 31n, 22,67 milioi euroko diruzaintza-soberakina zeukan, eta kopuru horretatik 9,62 milioi batez ere ikerketa-proiektuen finantzaketari atxikita zeuden eta gainerakoa, 13,05 milioi, 2008an gastuak finantzatzeko erabilgarri zegoen baliabidea zen.

2008ko memoria ekonomikoan jasotzen denez (Kontseilu Sozialak 2009ko ekainaren 12an onartu zuen), diruzaintzako soberakina, guztira, 19.141.033 eurokoa zen 2008ko ekitaldia ixtean, eta kopuru horretatik 10.873.017 euro batez ere ikerketa-proiektuen finantzaketari atxikitako soberakinari zegozkion eta gainerakoa, 8.268.016 euro, atxiki gabeko diruzaintzako soberakinari. Eratziki gabeko soberakineko 8.268.016 euro horietatik, 8.000.000 euro 2009ko hasierako aurrekontuan gastuak finantzatzeko baliatu dira. ⁽¹⁾

Unibertsitatean egindako erregularitasun-auditoriaren ondorioen artetik, hauek azpimarratzen ditugu:

Oraindik ere ez zaie kobratu kirol-instalazioen alokairua zenbait kirol-talderi; haien zorra, guztira, 2001. urtetik, 1,12 milioi eurokoa da.

Administrazio-kontratazioari dagokionez, oro har, kontratazio-espeditatearen tramitazioa, esleipena eta kontratuen betearazpena kontratuei buruzko legediaren arabera egin ziren.

Nafarroako Parlamentuak, 25/2002 Foru Legearen bidez, Tuteran unibertsitate-ikasketak jartzea onartu zuen. Unibertsitateak campusaren eraikuntza esleitu zuen 2006. urtean, 12,26 milioi euroko zenbatekoan.

Ikerketak 2007an egindako gastu guztien ehuneko 12 hartu zuen.

Orokorrean, ikerketa-proiektuetarako langileen kontratazioa ikertzaileak kontratatzeke araudiaren arabera egin da, baina ikerketa-proiektuetarako lankideen eta laguntzaileen aukeraketan, deialdiaren berri emateko prozedurak eta eskabideak aurkezteko jarritako epea laburra izateak ez dute behar adina bermatzen langileen hautaketarako publikitate- eta berdintasun-printzipioak betetzea.

Ikerketa-proiektuetan, dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen diren neurrian, gastuak deialdian adierazitako moduan justifikatzen dira erakunde finantzatzailearen aurrean, eta haien gauzapena baimendutako kontzeptu eta zenbatekoei egokitzten zaie.

Egokia da ikerketa-proiektu eta -kontratuei eratzikitako gastuen eta sarreraren kontabilitate-kudeaketa eta -kontrola. Hala ere, bukatutako ikerketa-kontratu eta -proiektu guztien kontabilitatea ez dago itxita; lan hori 2007an hasi zuen Unibertsitateak horretarako emandako arau bati jarraikiz.

(1) Lehen alegazioak sartutako paragrafoa.

Ikerketa-kontratuetatik sortutako sarreren ehuneko 10 Unibertsitatearen gastu orokorretara bideratu ziren. 2007. urteko aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ehuneko 20 bideratzeko adierazten zen, baina ehuneko horren aplikazioa eten egin zen, errektoreak 2007ko otsailean emandako Ebazpenaren bidez.

2007ko urtarrilaren 31n, Unibertsitatearen diruzaintzako funts likidoak 7,41 milioioak ziren, eta 7,02 milioi aldi baterako finantza-inbertsioetan zeuden inbertituta.

Unibertsitate-Gizarte Fundazioak bere estatutuetan ezarritako betebeharrak bete ditu kontabilitateari, auditoriari eta aurrekontuei dagokienez eta, oro har, Unibertsitateak egotzi zizkion jardueren kudeaketa ekonomikoa ezarritako arauen arabera egin zen.

Bai Unibertsitateak bai Fundazioak plan estrategiko bat onartu zuten, eta horretan honako hauek zehaztu ziren: misioa, helburu estrategikoak, haiek betetzeko helburu operatiboak, hala nola haiek guztiak lortzeko ekintzak.

Txosten honetan ematen diren gomendioei dagokienez, hauek azpimarratzen ditugu:

Beharrezko neurriak hartzea kirol-taldeei kirol-instalazioen erabilera eta ordaindu gabe dagoen zorra kobratzeko.

Finantzaketa eratxikita duten gastu amaituen gastu-unitate funtzionalen kontabilitatea ixten jarraitzea.

Adierazleak zehaztea jakiteko zer neurritan bete diren plan estrategikoetan jarritako helburuak.

SARRERA

Comptos Ganberak, abenduaren 20an emandako bere 19/1984 Foru Lege arautzailearen arabera, 2007ko ekitaldiari dagokion Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantza-auditoria egin du, bai eta 2006. eta 2007. urteei dagokien Unibertsitatearen eta Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren legezketasunarena ere.

Lan honen amaiera (2008an hasi zen) Comptos Ganberak 2009rako onetsitako fiskalizazio-programan sartu zen, eta auditoriako bost teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Landa-lana 2008ko abendutik 2009ko maiatzera bitarte egin zen.

Eskertu egin nahi dugu unibertsitateko eta fundazioko langileek lan hau egiteko emandako laguntza.

I. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

I.1 IZAERA JURIDIKOA ETA HELBURUAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoa Nafarroako Parlamentuak 1987an sortutako zuzenbide publikoko erakunde bat da, nortasun juridikoa eta berezko ondarea dauzkana, eta Nafarroan goimailako hezkuntza-zerbitzu publikoa ematen duena ikerketaren, irakaskuntzaren eta ikasketaren bidez.

I.2 GOBERNU-ORGANOAK

Unibertsitatea organo eta kargu hauen bidez gobernatzen eta administratzen da:

Organo kolegiatuak

- Esparru orokorrekoak: Kontseilu Soziala, Gobernu Kontseilua, Unibertsitateko Klaustroa, Batzorde Aholku-emailea eta Zuzendaritza Kontseilua.

- Esparru berezikoak: zentroko batzarrak eta departamentuko kontseiluak.

Pertsona bakarreko organoak

- Esparru orokorrekoak: errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusia eta kudeatzailea.

- Esparru berezikoak: eskola-zuzendariak eta dekanok eta departamentu-buruak.

Pertsona bakarreko karguak

- Esparru berezikoak: eskolako zuzendariordeak eta dekanordeak, departamentuko zuzendariordeak eta fakultate, eskola nahiz departamentuko idazkariak.

I.3 IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKETA

Unibertsitateak hauek erabiltzen ditu bere irakaskuntzak antolatzeko:

- Zentroak; hauek dira:

- Hiru fakultate: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea eta Zientzia Juridikoen Fakultatea (2007an sortua).

- Goi-mailako bi eskola tekniko: Ingeniari agromoen goi-mailako eskola teknikoa eta industria-eta telekomunikazio-ingeniarien goi-mailako eskola teknikoa.

- Osasun-ikasketen unibertsitate-eskola bat.

- 22 departamentu; haien eginkizunak hauek dira: arlo homogeneoetako irakaskuntzak koordinatzea eta ikerketa.

• Agrobioteknologiaren ikerketarako unibertsitate-institutu bat; Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseiluak, Unibertsitateak eta Nafarroako Gobernuak partekatzen dute haren titulartasuna.

Hauek izan ziren Unibertsitateak eskainitako titulazioak eta haietan matrikulatutako ikasleak:

Tituluak	2007-2008 ikasturtea		2006-2007 ikasturtea	
	Tit. kop.	Ikasle kop.	Tit. kop.	Ikasle kop.
1. eta 2. zikloak	20	7.276	20	7.330
3. zikloa:		770		728
– Doktoregoa		452		499
– Graduondokoa		318		229
Titulu berekiak:		256		89
– Masterra	2	15	3	28
– Aditua	3	52	3	61
– Espezializazioa	2	189		
Esperientziaren Ikasgela		255		221

I.4 ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA

Unibertsitatearen administrazio-egiturak hauek ditu oinarritzat: Kontseilu Soziala, errektorea eta Gerentzia (horri unibertsitate-zerbitzuak atxikitzen zaizkio). 2007an, hauek izan ziren zerbitzu horiek:

- Araubide Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzua
- Komunikabide Zerbitzua
- Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua
- Ikasleen eta laguntza akademikorako zerbitzua
- Giza Baliabideen Zerbitzua
- Liburutegi Zerbitzua
- Informatika Zerbitzua
- Hizkuntzaren normalizazio-zerbitzua eta euskararen unitate teknikoa
- Unibertsitatearen hedapen-zerbitzua
- Ikerketa Zerbitzua

I.5 MENDEKO ERAKUNDEAK

Unibertsitateak Unibertsitate-Gizarte Fundazioa sortu zuen 1996. urtean, 24.040 euroko dirukopuruarekin sortu ere, elkarrizketa sustatzeko eta Unibertsitatearen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetzak bideratzeko.

Fundazioak hauek kudeatzen ditu: unibertsitate-tituludunak lan-merkatuan sartzea; prestakuntza-jarduerak (adibidez: ikasgela irekia eta Tuterako esperientziaren ikasgela 2007-2008 ikasturtera arte); titulu berekiak; Goi Mailako Hizkuntza Zentroa; eta Unibertsitateko kultura-jarduerak.

Fundazioaren gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organoak Patronatu Batzordea, Zuzendaritza Batzordea eta zuzendari-kudeatzailerak dira.

Unibertsitateak erakunde hauetan parte hartzen du:

<i>Erakundea</i>	<i>Sozietatearen xedea</i>	<i>Parte-hartzearen zenbatekoa 2007/12/31</i>
<i>“Estanislao Aranzadi” Praktikako Eskola Fundazioa</i>	<i>Zuzenbide-lizentziadunen prestaketa.</i>	<i>18.510</i>
<i>Amado Alonso Fundazioa</i>	<i>Sortzailearen bizitza eta obra zabaltzea, eta hura aritu zen jarduera nagusiak sustatzea; filologia batez ere.</i>	<i>1.202</i>
<i>Start Up Capital Navarra SA</i>	<i>Enpresak sustatzea, haien kapitalean parte hartuta.</i>	<i>30.000</i>
<i>Pamplona Convention Bureau SL</i>	<i>Iruñea: turismoaren sustapena eta kongresu-hiria.</i>	<i>2.254</i>
<i>Portal Universia SA</i>	<i>Zerbitzuak teknologia berrien esparruan.</i>	<i>26.930</i>
<i>Unibertsitatearen Kudeaketa Sistema, AIE</i>	<i>Informatika-bitartekoak unibertsitate-kudeaketarako.</i>	<i>227.183</i>

Era berean, Jaime Brunet Fundazioak ere Unibertsitatean dauka sozietatearen helbidea; funtsezko eskubideak eta askatasunak sustatzea da fundazioaren xedea.

1.6 EKONOMIA- ETA FINANTZA-, AURRE-KONTU- ETA KONTABILITATE-ARAUBIDEA

Unibertsitateak autonomia ekonomikoa eta finantzarioa dauka. Horretarako, kalitatezko oinarritzko funtzionamendua izateko beharrezko baliabideak bermatuko dira.

Unibertsitateak finantzaketa-hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin 2006-2008 aldirako, eta hartan hitzarmenaren indarraldiko urte bakoitzean Nafarroako aurrekontu orokorretan zordunduta jasoko zituen ekarpenak finkatu ziren (bai ekarpen arruntak, bai kapitalekoak).

Unibertsitatearen aurrekontu- eta kontabilitate-araubideak sektore publikoko arau orokorretara egokitu behar du; besteak beste, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrera.

1.7 PLAN ESTRATEGIKOA

Unibertsitateak plan estrategiko bat egin zuen 2005-2008 aldirako, eta hartan bere misioa zehaztu zuen, eta helburu estrategikoak, helburu operatiboak eta haiek guztiak bost lan-ardatzetan (prestakuntza, ikerketa, pertsonak, zerbitzuak eta baliabideak) lortzeko jarduerak finkatu zituen.

1.8 ARAUDIA

Barne-araudiari lotuta egoteaz gain, legezko eta arauzko xedapen hauek ere aplikatu dakizkioke Unibertsitateari 2006. eta 2007. urteetan:

- Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoa, 4/2007 Lege Organikoa aldatua.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeko 8/1987 Foru Legea.

- Kontseilu Sozialari buruzko 20/1994 Foru Legea.

- Unibertsitate Publikoaren Estatutuak onartu zituen 110/2003 Foru Dekretua.

- Nafarroako Toki Administrazioen Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legea eta Kontratu Publiko-
ei buruzko 6/2006 Foru Legea.

- 1086/1989 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, unibertsitate-irakasleen ordainsariei buruzkoa; 898/1985 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, unibertsitate-irakasleen araubideari buruzkoa; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, funtzio publikoa erreformatzeko neurriari buruzkoa.

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legea.

- 1994ko maiatzaren 6ko agindua, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartu zuena.

Fundazioari, besteak beste, arau hauek aplikatu dakizkioke 2006an eta 2007an:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren estatutuak.

- Fundazioei buruzko 10/1996 Foru Agindua, uztailaren 2koa.

- 776/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitze arauak onartu zituen.

II. HELBURUA

Finantza- eta legezkoitasun-fiskalizazioaren helburua hauetaz dugu iritzia adieraztea da:

a) Ea Unibertsitatearen 2007. urteko kontuek honako hauen irudi zehatza ematen duten alderdi adierazgarri guztietan: 2007ko abenduaren 31ko ondarearena eta finantza-egoerarena, aurrekontuaren likidazioarena eta data horretako ekonomia- eta ondare-emaizarena, kontabilitate-printzipio eta -arau aplikagarrien arabera.

b) 2006an eta 2007an, Unibertsitatearen finantza-jarduerak legeak bete dituen.

c) 2006an eta 2007an, Unibertsitate-Gizarte Fundazioak legeak bete dituen administrazio-kontratazioan eta langileen aukeraketan.

d) Unibertsitatearen 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) 2004ko eta 2005eko ekitaldiei buruz egindako azken fiskalizazio-txostenean, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak bete diren.

III. LANAREN NORAINOKOA

Gure lanaren norainokoa 2007. urteko Unibertsitatearen kontuak dira; kontu horiek Kontseilu Sozialak onartu zituen 2008ko uztailaren 2an, eta beren barruan hauek hartzen dituzte: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua, eta memoria.

Fiskalizazioa gauzatu da barne-kontrola aztertuz eta aurrekontuko gastuen eta sarreren eta balantzeko ondare-kontuen lagin baten berrikusketarekin; horretarako, hautaketa-probak egin eta lanaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jo diren auditoria-teknikak baliatu dira.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipioen eta -arauen arabera, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

Ez dugu auditoriarik egin 2007ko ekitaldiko Fundazioaren urteko kontuei buruz, kanpoko profesionalak ikuskatu baitituzte.

Fundazioaren kontabilitateko egoera-orrien berrikuste mugatua egin dugu, Unibertsitateak 2007. urtean egotzi zizkion jardueretako batzuen kudeaketa aztertzean.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren ondorio gisa, honako iritzia hau adierazi behar dugu:

IV.1 NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Urteroko kontuak

Unibertsitatearen 2007. urteko kontuek honako hauen irudi zehatza ematen dute haien alderdi adierazgarri guztietan: 2007ko abenduaren 31ko ondarearena eta finantza-egoerarena; 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioarena; eta data horretako ekonomia- eta ondare-emaizarena. Era berean, nahikoa eta beharrezkoa den informazioa ere jasotzen dute haiek behar bezala interpretatu eta ulertzeko, aplikagarriak diren kontabilitate-printzipio eta -arau publikoei jarraikiz.

Legezkoitasuna

2006. eta 2007. urteetan, Unibertsitatearen finantza-jarduera, orokorrean, legezkoitasun-printzipioaren arabera garatu da.

IV.2 UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA

Legezkoitasuna

Fundazioak, orokorrean, indarreko legedia bete du 2006. eta 2007. urteetan langileen aukeraketari eta administrazio-kontratazioari dagokienez.

IV.3 UNIBERTSITATEAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

2007. eta 2006. urteetan, hauek dira aurrekontu-adierazle eta emaitza nagusiak, bai eta Unibertsitatearen finantza-egoerari dagozkionak ere:

	2007. urtea	2006. urtea	Aldak.
Diru-sarrera arruntak	77.716.282	69.607.377	% 12
Gastu arruntak	63.154.627	60.370.538	% 5
Aurrezki arrunta	14.561.655	9.236.839	% 58
Kapital-sarrerak	5.892.501	3.430.457	% 72
Inbertsioak eta beste kapital-gastu batzuk	12.548.342	9.637.169	% 30
Inbertsioen finantzaketa-beharrak	-6.655.841	-6.206.712	% 7
Finantzaketako superabita	8.954.747	7.051.577	% 27
Diruzaintzako soberakina, guztira	22.672.971	15.490.991	% 46
Diruzaintzako soberakin eratzikia	9.620.975	6.465.161	% 49
Diruzaintzako soberakin eratziki gabea	13.051.995	9.025.830	% 45

Unibertsitateak 14,56 milioi euroko aurrezki arrunta lortua zuen 2007ko abenduaren 31n; horrek esan nahi du, gastu arrunt guztiak izaera bereko sarrerekin finantzatu ondoren, baliabide arruntak izan zituela inbertsioak finantzatzeko.

2006. urtearen aldean, aurrezki arrunta ehuneko 58 handitu zen, sarrera arruntak gastu arruntak baino proportzio handiagoan emendatu zirelako: ehuneko 12 sarrerak; ehuneko 5, berriz, gastuak.

2006tik 2007ra bitartean, ehuneko 12 handitu ziren sarrera arruntak, batez ere kontzeptu hauek haztearen ondorioz: OTRI kontratuengatik lortutako sarrerak; Zientzia eta Teknologia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren proiektu eta lanetarako dirulaguntzak; Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren dirulaguntza ikertzailentzat; eta oinarritzko finantzaketa egiteko eta Tuteran ikasketak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren transferentziak.

Gastu arruntak 2006tik 2007ra bitarte ehuneko bost hazi izana langile-gastuak haztearen ondorioa da nagusiki.

2007an sortutako kapital-sarrerak ez dira aski izan ekitaldi horretan egindako kapital-gastuak finantzatzeko. 2007an sortutako inbertsioen finantzaketa-beharrak baliabide arruntekin finantzatu dira.

Nafarroako Gobernuak gastu arruntak finantzatzeko egindako ekarpenak haien ehuneko 85 betetzen du, eta kapital-ekarpenak 2007an egindako

inbertsioen ehuneko 47. Gobernuak, guztira, Unibertsitateak 2007an egindako gastuen ehuneko 78 finantzatu du.

2007ko ekitaldia ixtean, 8.954.747 eurokoa zen finantzaketa-superabita.

2007ko abenduaren 31n, diruzaintzako soberakina, guztira, 22.672.971 eurokoa zen, eta kopuru horrek egun hartan guztira metatuta zegoen likidezia adierazten du. Kopuru horretatik, 14.436.851 euro diruzaintzako funts likidoak dira. 2006. urtearen aldean, diruzaintzako soberakina, guztira, ehuneko 46 handitu da, aitortutako eskubideak haztearen ondorioz nagusiki.

Soberakin horretatik, 9.620.975 euro batez ere ikerketa-proiektuen finantzaketari daude eratzikita eta, gainerakoa, 13.051.995 euro, hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko eskura dagoen baliabide bat da.

2008ko memoria ekonomikoan jasotzen denez (Kontseilu Sozialak 2009ko ekainaren 12an onartu zuen), diruzaintzako soberakina, guztira, 19.141.033 eurokoa zen 2008ko ekitaldia ixtean, eta kopuru horretatik 10.873.017 euro batez ere ikerketa-proiektuen finantzaketari eratzikitako soberakinari zegozkion eta gainerakoa, 8.268.016 euro, eratziki gabeko diruzaintzako soberakinari. Eratziki gabeko soberakineko 8.268.016 euro horietatik, 8.000.000 euro 2009ko hasierako aurrekontuan gastuak finantzatzeko baliatu dira. ⁽²⁾

(2) Lehen alegazioak sartutako paragrafoa.

IV.4 GOMENDIOAK BETETZEA.

Egiaztatu dugu Unibertsitateak eta Fundazioak bete egin dituztela 2004ko eta 2005eko ekitaldiei dagokien fiskalizazio-txostenean emandako gomendio hauek:

Unibertsitatearen urteko kontuen Memoriaren edukia bete da.

Aurrekontuz kanpoko kontzeptuen eta balantzeko kontuen saldoak erregularizatu egin dira.

Langile-espeditenteak osatu egin dira; horretarako, haien familia-gorabeherei buruzko informa-

zioa erabili da, bai eta haiei buruz emandako administrazio-egintzen gaineko informazioa ere.

2008an, lan zientifikoak, teknikoak eta artistikoak egiteko kontratazio-araudia onartu zen.

Unibertsitate-Gizarte Fundazioari dagokionez:

Kontseilu Sozialak berariaz onartu zituen Fundazioaren 2007. urteko kontuak.

Fundazioak 2007-2009 aldirako Plan Estrategikoa onartu zuen.

V. UNIBERTSITATEAREN ETA FUNDAZIOAREN 2007. EKITALDIKO URTEKO KONTUAK

Ondoren, Unibertsitatearen eta Fundazioaren urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orrietako batzuk azaltzen dira.

AURREKONTUKO LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA:

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila

KAPITULUA	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitortutako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	Kobratzeko dauden eskubideak
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.939.709	4.493.858	13.433.567	14.108.184	12.375.606	1.732.577
4. Transferentzia arruntak	55.420.399	7.695.932	63.116.332	62.984.703	54.805.118	8.179.586
5. Ondareko diru-sarrerak	327.348	0	327.348	623.395	623.395	0
7. Kapital-transf.	6.500.002	45.144	6.545.146	5.892.501	22.572	5.869.929
8. Aktibo finantzarioak	2.654.535	10.313.804	12.968.339	0	0	0
GUZTIRA.....	73.841.993	22.548.738	96.390.732	83.608.783	67.826.691	15.782.092

Gastuen aurrekontuaren gauzatze-maila

KAPITULUA	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako obligazio garbia	Ordainketa kitatuak	Ordaintzeko dauden obligazioak
1. Langile-gastuak	43.647.669	4.059.145	47.706.815	42.113.516	42.039.600	73.916
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15.643.266	11.301.242	26.944.509	18.425.106	15.006.145	3.418.961
3. Finantza-gastuak	7.485	63.929	71.414	67.578	67.569	9
4. Transferentzia arruntak	2.612.974	1.288.442	3.901.415	2.548.426	2.462.713	85.713
6. Inbertsio errealak	11.930.599	5.768.402	17.699.001	12.499.274	9.089.522	3.409.752
7. Kapital-transferentziak	0	49.068	49.068	49.068	0	49.068
8. Aktibo finantzarioak	0	18.510	18.510	0	0	0
GUZTIRA	73.841.993	22.548.738	96.390.732	75.702.968	68.665.549	7.037.419

2007ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta.

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako obligazio garbiak	Zenbatekoak
1. (+) Eragiketa ez-finantzarioak	83.608.783	75.702.968	7.905.814,95
I. kapitulua	0	42.113.516	-42.113.516
II. kapitulua	0	18.425.107	-18.425.107
III. kapitulua	14.108.184	67.578	14.040.606
IV. kapitulua	62.984.703	2.548.426	60.436.277
V. kapitulua	623.395	0	623.395
VI. kapitulua	0	12.499.274	-12.499.274
VII. kapitulua	5.892.501	49.068	5.843.433
2. (+) Eragiketa finantzarioak	0	0	0
VIII. kapitulua	0	0	0
I. EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)	83.608.783	75.702.968	7.905.815
IX. kapitulua	0	0	0
II. PASIBO FINANTZARIOEN ALDAKETA GARBIA	0	0	0
III. EKITALDIKO AURREKONTU-SALDOA (1+II)	83.608.783	75.702.968	7.905.815
3. (+) Diruzaintzako soberakinarekin finantzatzutako kredituak			4.204.746
4. (-) Finantziazio-desbideratze positiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan, ekitaldiko baliabideetatik.			-3.155.814
5. (+) Finantziazio-desbideratze negatiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan			0
IV. EKITALDIKO FINANTZAKETAREN SUPERABITA EDO DEFIZITA (III+3+4+5)			8.954.747

BALANTZEA

Aktiboa	Kontzeptua	2007	2006
A) IBILGETUA		159.757.372	155.715.027
I. Erabilpen orokorrerako inbertsioak			
1. Lurrak eta ondasun naturalak		0	0
2. Azpiegiturak eta erabilera orokorreko ondasunak		0	0
3. Herri-ondasunak		0	0
4. Historia-, arte- eta kultura-ondareko ondasunak		0	0
II. Ibilgetu ez-materialak		1.381.468	1.386.083
1. Ikerketa- eta garapen-gastuak		0	0
2. Jabego industrialak		151.314	62.697
3. Aplikazio informatikoak		5.288.029	4.756.941
4. Jabego intelektualak		0	0
6. Bestelako ibilgetu ez-materialak		781	781
7. Hornidurak		0	0
8. Amortizazioak		-4.058.656	-3.434.335
III. Ibilgetu materialak		158.038.971	153.992.611
1. Lursailak eta eraikinak		149.931.945	144.047.327
2. Instalazio teknikoak eta makineria		36.966.088	35.126.104
3. Tresneria eta altzariak		14.660.861	13.897.209
4. Beste hainbat ibilgetu		45.228.522	41.868.843
5. Hornidurak		0	0
6. Amortizazioak		-88.748.445	-80.946.872
IV. Kudeatutako inbertsioak		0	0
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak		336.933	336.332
1. Epe luzerako baloreen zorroa		330.119	330.119
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak		0	0
3. Epe luzerako eratutako gordailuak eta finantzak		6.814	6.213
4. Hornidurak		0	0
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK		0	0
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA		31.448.145	23.365.292
I. Izakinak			
II. Zordunak		17.013.192	8.025.453
1. Aurrekontu-zordunak		18.263.642	8.918.470
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak		547.802	223.893
4. Administrazio publikoak		531.987	527.381
5. Bestelako zordunak		15.100	4.167
6. Hornidurak		-2.345.339	-1.648.459
III. Aldi baterako finantza-inbertsioak		7.019.950	6.933.901
1. Epe laburrerako baloreen zorroa		7.021.848	6.935.799
2. Epe laburrerako bestelako inbertsioak eta kredituak		0	0
3. Epe laburrerako eratutako gordailuak eta finantzak		-1.898	-1.898
4. Hornidurak		0	0
IV. Diruzaintza		7.415.003	8.405.938
V. Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak		0	0
Guztira, oro har		191.205.517	179.080.318

Pasiboa	Kontzeptua	2007	2006
A)	FUNTS BEREKIAK	182.430.343	171.206.018
I.	Ondarea	128.468.214	128.468.737
1.	Ondarea	122.527.386	122.527.386
2.	Adskripzioan jasotako ondarea	0	0
3.	Lagata jasotako ondarea	5.385.399	5.385.399
4.	Adskripzioan emandako ondarea	0	0
5.	Lagata emandako ondarea	555.429	555.952
6.	Erabilera orokorrerako ondarea	0	0
II.	Erreserbak	0	0
III.	Aurreko ekitaldietako emaitzak	42.737.281	40.090.977
1.	Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	44.460.359	41.814.055
2.	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-1.723.078	-1.723.078
IV.	Ekitaldiko emaitzak	11.224.848	2.646.303
B)	ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0	0
C)	EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK		
1.	Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipena		
1.	Obligazioak eta bonoak	0	0
2.	Zorrak bestelako balore negoziagarrietan	0	0
3.	Obligazioen eta beste balore batzuen interesak	0	0
4.	Zorrak atzerriko dirutan	0	0
II.	Epe luzeko bestelako zorrak		
1.	Kreditu-entitateekiko zorrak	0	0
2.	Bestelako zorrak	0	0
3.	Zorrak atzerriko dirutan	0	0
4.	Epe luzerako jasotako gordailuak eta finantzak	0	0
III.	Akzioen gainean egin gabe dauden ordainketak, eskatu gabeak	0	0
D)	EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	8.775.174	7.874.301
I.	Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipena		
1.	Epe laburreko obligazioak eta bonoak	0	0
2.	Zorrak bestelako balore negoziagarrietan	0	0
3.	Obligazioen eta beste balore batzuen interesak	0	0
4.	Zorrak atzerriko dirutan	0	0
II.	Kreditu entitateekiko zorrak		
1.	Maileguak eta bestelako zorrak	0	0
2.	Interesengatiko zorrak	0	0
III.	Hartzekodunak	8.775.174	7.874.301
1.	Aurrekontuko hartzekodunak	7.221.914	6.181.763
2.	Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	153.333	419.116
3.	Hartzekodunak, baliabideak OEPre kontura administratzeagatik	0	0
4.	Administrazio publikoak	1.334.141	1.286.479
5.	Bestelako hartzekodunak	39.168	-43.104
6.	Epe laburrerako jasotako gordailuak eta finantzak	26.619	30.046
IV.	Aldizkatzearen ondoriozko doitzak	0	0
E)	ARRISKU ETA EPE LABURREKO GASTUETARAKO HORNIDURAK		
I.	Sarreren itzulketarako hornidura	0	0
	Guztira, oro har	191.205.517	179.080.318

Zor

	2007	2006
A) GASTUAK	72.357.897	70.385.924
I. Zerbitzu eta prestazio sozialen funtzionamendu-gastuak	69.761.531	66.896.703
a) Langile-gastuak:	43.230.597	39.965.126
a.1) Soldatak, lansariak eta antzekoak	37.942.491	35.149.806
a.2) Gizarte-zamak	5.288.106	4.815.321
b) Gizarte-prestazioak	0	0
c) Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	8.463.856	9.644.776
d) Trafiko-horniduren aldaketak	696.881	240.495
d.1) Hornigaien aldaketa eta kobraezinak diren kredituen galerak	696.881	240.495
d.2) Sarreren itzulketarako horniduraren aldaketa	0	0
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	17.302.620	17.044.164
e.1) Kanpoko zerbitzuak	17.299.737	17.039.887
e.2) Tributua	2.884	4.277
e.3) Beste gastu batzuk, kudeaketa arruntarenak	0	0
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	65.013	784
f.1) Zorrek direla eta	65.013	784
f.2) Inbertsio finantzarioetako galerak	0	0
g) Inbertsio finantzarioetarako hornidura-aldaketa	0	0
h) Kanbioan izandako alde negatiboak	2.564	1.357
2. Transferentziak eta dirulaguntzak	2.597.494	3.338.839
a) Transferentzia arruntak	3.162	9.162
b) Dirulaguntza arruntak	2.545.264	3.329.678
c) Kapital-transferentziak	49.068	0
d) Kapital-dirulaguntzak.	0	0
3. Ezohiko galerak eta gastuak	-1.128	150.381
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	-2.232	42
b) Zorpetze-eragiketetatik heldu diren galerak	0	0
c) Aparteko gastuak	789	2.397
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	316	147.941
e) Ibilgetu ez-finantzarioetarako hornidura-aldaketa	0	0
AURREZKIA	11.224.848	2.646.303

Hartzeko

	2007	2006
A) DIRUSARRERAK	83.582.745	73.032.227
1. Zerbitzuak ematea	10.110.169	10.151.060
a) Tasak zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik	7.825	7.733
b) Prezio publikoak zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik	9.442.179	9.513.133
c) Prezio publikoak erabilera pribatiboagatik, edo aprobetxamendu bereziagatik, edo jabari publikoagatik	660.164	630.193
2. Ohiko kudeaketako beste sarrera batzuk	4.595.372	2.994.994
a) Itzulketak	33.413	11.076
b) Entitateak egindako lanak	0	0
c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	4.062.815	2.739.897
c.1) Sarrera osagarriak eta ohiko kudeaketako beste batzuk	4.062.815	2.739.897
c.2) Arrisku eta gastuetarako hornidura gehiegi	0	0
d) Kapitaleko partaidetzengatik diru-sarrerak	0	0
e) Beste balore negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituen diru-sarrerak	0	0
f) Beste interes batzuk eta antzeko diru-sarrerak	496.145	239.037
f.1) Beste interes batzuk	496.145	239.037
f.2) Inbertsio finantzarioetako mozkinak	0	0
g) Kanbioan izandako alde positiboak	2.999	4.984
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	68.877.204	59.885.872
a) Transferentzia arruntak	53.585.507	50.303.506
b) Dirulaguntza arruntak	9.399.196	6.149.296
c) Kapital-transferentziak	5.892.501	3.331.711
d) Kapital-dirulaguntzak.	0	101.359
4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak		301
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	0	0
b) Zorpetze-eragiketetatik heldu diren etekinak	0	0
c) Aparteko diru-sarrerak	0	301
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	0	0
DESAURREZKIA		

MEMORIA:

Diruzaintzako soberakinaren egoera 2007-12-31n

Kontzeptua	2007. urtea	2006. urtea
1. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	16.957.026	8.062.492
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: oraingo ekitaldia	15.782.092	7.262.929
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	2.481.550	1.655.541
(+) Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	1.077.892	749.376
(+) Merkataritzako eragiketetakoak	0	0
(-) Izandako kobrantzak, behin betiko aplikatzeko daudenak	39.168	-43.104
(-) Kobratzeko zailak diren saldoak	2.345.339	1.648.459
2.(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	8.720.906	7.913.238
(+) Gastuen aurrekontua: oraingo ekitaldia	7.063.699	5.808.858
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldia	158.215	372.905
(+) Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	1.514.092	1.735.641
(+) Merkataritzako eragiketetakoak	0	0
(-) Egindako ordainketak, behin betiko aplikatzeko daudenak	15.100	4.167
3.(+) Funts likidoak	14.436.851	15.341.736
I. Diruzaintzako soberakina, guztira (1-2+3)	22.672.971	15.490.991
II. Diruzaintzako soberakin eratzikia	9.620.975	6.465.161
III. Diruzaintzako soberakin eratziki gabea = (I-II)	13.051.995	9.025.830

UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA**2007KO EKITALDIKO EGOERA-BALANTZEA**

AKTIBOA	2007-12-31	2006-12-31
IBILGETUA	59.744,02	79.516,58
IBILGETU EZ-MATERIALAK	17.663,30	35.832,23
Aplikazio informatikoak	118.368,51	103.295,69
Aurrerakinak	0,00	11.155,00
Amortizazioak	-100.705,21	-78.618,46
BESTE IBILGETU MATERIAL BATZUK	42.080,72	43.684,35
Instalazio teknikoak eta makineria	20.122,43	20.122,43
Beste instalazio batzuk, tresneria eta altzariak	105.305,18	88.170,63
Bidean dauden aurrerakinak eta ibilgetu materialak	312,00	0,00
Beste hainbat ibilgetu	128.744,62	101.783,81
Amortizazioak	-212.403,51	-166.392,52
AKTIBO ZIRKULATZAILEA	2.284.840,35	2.523.936,58
JARDUERAREN BERAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE	1.651.071,59	921.379,47
ZORDUN BATZUK		
BESTELAKO ZORDUNAK	163.164,28	123.996,93
Salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak	153.531,19	114.680,17
Bestelako zordunak	3.097,11	425,83
Administrazio publikoak	8.855,98	8.890,93
Hornidurak	-2.320,00	0,00
DIRUZAINZTA	423.216,18	1.461.537,55
ALDIZKATZEAREN ONDORIOZKO DOITZEAK	47.388,30	17.022,63
Guztira, oro har	2.344.584,37	2.603.453,16

PASIBOA	2007-12-31	2006-12-31
FUNTS BEREKIAK	818.012,73	1.010.722,84
FUNDAZIO-ZUZKIDURA / FUNTS SOZIALA	278.967,50	278.444,57
ERRESERBAK	539.045,23	603.083,50
Beste erreserba batzuk	539.045,23	603.083,50
EKITALDIKO SOBERAKINA (POSITIBOA ALA NEGATIBOA)	0,00	129.194,77
ZENBAIT EKITALDITAN BANATZEKO DIRU-SARRERAK	1.665,68	0,03
Dirulaguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak eta beste	1.665,68	0,03
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	0,00	8.338,70
BESTELAKO HARTZEKODUNAK	0,00	8.338,70
Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	0,00	8.338,70
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.524.905,96	1.584.391,59
TALDEKO ETA ELKARTUTAKO ENTITATEEKIKO EPE	423.155,04	362.224,37
LABURREKO ZORRAK		
Taldeko entitateekiko zorrak	423.155,04	362.224,37
ONURADUNAK-HARTZEKODUNAK	351,67	12.183,11
MERKATARITZA-HARTZEKODUNAK	184.787,99	178.296,70
Erosketengatik edo zerbitzuak emateagatiko zorrak	184.787,99	178.296,70
BESTELAKO ZOR EZ-KOMERTZIALAK	154.619,81	150.056,64
Administrazio publikoak	154.619,81	150.056,64
ALDIZKATZEAREN ONDORIOZKO DOITZEAK	761.991,45	881.630,77
Guztira, oro har	2.344.584,37	2.603.453,16

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA – 2007KO EKITALDIA

GASTUAK	2007-12-31	2006-12-31
Dirutako laguntzak eta beste	3.120.977,00	3.331.005,21
Dirutako laguntzak	3.120.977,00	3.331.005,21
Langile-gastuak	2.004.754,31	1.860.602,64
Soldatak, lansariak eta antzekoak	1.562.036,21	1.466.914,49
Gizarte-zamak	442.718,10	393.688,15
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	45.102,22	42.606,19
Beste gastu batzuk	948.926,97	1.040.250,69
Kanpoko zerbitzuak.	948.440,63	1.033.499,35
Tributuak	-28,16	6.751,34
Beste gastu batzuk, kudeaketa arruntarenak	514,50	0,00
Jardueraren horniduren aldaketa	3.440,00	-1.900,00
USTIAPENENKO EMAITZA POSITIBOAK	0,00	126.686,25
FINANTZA-EMAITZA POSITIBOAK	2.132,67	837,62
JARDUERA ARRUNTEN EMAITZA POSITIBOAK	0,00	127.523,87
Beste ekitaldi batzuetako gastu eta galerak	0,00	107,74
OHIZ KANPOKO EMAITZA POSITIBOAK	13.316,60	1.670,90
ZERGA AURREKO EMAITZA POSITIBOAK	0,00	129.194,77
EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOA (AURREZKIA)	0,00	129.194,77
DIRU-SARRERAK	2007-12-31	2006-12-31
Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak	6.107.705,19	6.399.129,57
Erabiltzaile eta kideen kuotak	2.402.228,49	2.557.520,97
Sustapenak, babesleak eta laguntzaileak direla eta izandako diru-sarrerak	3.453.382,56	3.619.309,15
Ekitaldiaren emaitzari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	252.094,14	222.299,45
Salmentak eta merkataritza-jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera arrunt batzuk	0,00	0,00
Beste diru-sarrera batzuk	46,04	121,41
Sarrera osagarriak eta ohiko kudeaketako beste batzuk	46,04	121,41
USTIAPENENKO EMAITZA NEGATIBOAK	15.449,27	0,00
Beste interes eta antzeko diru-sarrerak	2.132,67	837,62
Beste interes batzuk	2.132,67	837,62
JARDUERA ARRUNTEN EMAITZA NEGATIBOAK	13.316,60	0,00
Aparteko diru-sarrerak	10.587,48	0,00
Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	2.729,12	1.778,64

VI. UNIBERTSITATEAREN ERREGULARTASUN-AUDITORIAREN ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honen barruan Unibertsitatean egindako erregulartasun-fiskalizazioaren ondorioak (finantzarioarenak bezala legezketasunarenak ere) eta dagozkien gomendioak jasotzen dira.

VI.1 2007ko AURREKONTUA ETA URTEKO KONTUAK

Kontseilu Sozialak 2006ko abenduaren 27an onartu zuen 2007ko aurrekontua; hasierako gastu-eta sarrera-aurreikuspenak 73,84 milioi eurokoak ziren.

Sarreretan hauek jaso ziren: transferentzia arrunten 53,56 milioi euro; Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentzien 6,5 milioi euro (2007. urterako finantzaketa-hitzarmenean aurreikusita zeuden); eta beste 2,65 milioi euro, aurreikusitako aurrekontu-defizita finantzatzeko diruzaintzako soberakin gisa.

Ez zitzaion erantsi aurrekontuari maila guztietako lanpostuen zerrenda horretako kostu guztiak zehaztuta.

2007an, aurrekontu-kredituak 22,55 milioi eurotan aldatu ziren. Orokorrean, aurrekontu-aldaketak Ogasun publikoari buruzko legearen eta aurrekontua gauzatzeko oinarrietan erabakitako prozeduraren arabera tramitatu ziren.

Urteko kontuek Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean adierazitako kontabilitateko egoera-orriak jasotzen dituzte eta haien egitura, oro har, planean xedatutakoei egokitzen da. 2007an, memorian aurkeztutako informazioa zabaldu eta osatu egin da, baina ez da jasotzen finantzaketa-taula.

Urteko kontuak osatzen dituzten egoera-orrien artean korrespondentzia egon arren, aurrekontuz kanpoko kontzeptu batzuei lotutako zenbatekoetan alde txikiak atzeman ditugu balantze-saldoen eta hari dagokion aurrekontuz kanpoko egoera-orriko saldoen artean. Alde horietako batzuk 2009ko ekitaldian zuzendu dira.

Aurreko ekitaldietako aurrekontuz kanpoko kontu-saldo okerrak daude; hauekin daukate zerikusia: BEZarekin, PFEZren atxikipenekin, segurantz-mutualitatearekin, osasun-laguntzarekin eta MUFACerekin, hala nola itxitako zenbait ekitaldietako hartzekodunekin.

Hona gure gomendioak:

Aurrekontuari eranstea maila guztietako langileen lanpostuen zerrenda, haren kostu guztiak zehaztuta.

Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko informazio guztia jasotzea memorian.

Aurrekontuz kanpoko kontzeptuen saldoak eta itxitako ekitaldietako hartzekodunenak aztertzea eta garbitzea, bai eta urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri guztiak koardatzea ere.

VI.2 BARNE-KONTROLA

Unibertsitatearen ekonomia- eta finantza-kudeaketaren barne-kontrola egiteko, kontu-hartzeko eginkizuna, finantza-kontrola eta eraginkortasun-kontrola erabiliko dira.

Unibertsitatearen estatutuek diote Unibertsitateak, barne-auditoria egiteko, langile tekniko espezializatuak izanen dituela Gerentziaren organigramaren barruan, ekonomia- eta finantza-kudeaketaren ebaluazio eta kontrol iraunkorra ziurtatzeko.

2007an, auditore-postua sortu zen auditoria-, antolakuntza- eta kalitate-unitateari atxikita; unitate hori ere urte berean sortu zen, eta gerentziaren mende dago.

Auditore-postua ez zen bete 2007an eta, beraz, aurreko antolaketa-egiturari eutsi zitzaion; egitura horretan, barne-kontrola egitea kontu-hartzaileari zegokion, eta postu hori barneko kontuak hartzeko auditoria-unitateari atxikita zegoen, zeina errektorearen mende baitzegoen.

Kontu-hartzailea da auditoria-, antolaketa- eta kalitate-unitatearen arduraduna; unitate hori gerentziaren mendekoa da.

Ez dago jasota 2007an urteko fiskalizazio-plana egin zenik. Plan horrek finantza-kontrolaren esparruan egitea aurreikusitako jarduerak eta helburuak jaso behar ditu, Kontseilu Sozialeko Batzorde Ekonomikoan azaldu behar da, eta errektoreak onartu behar du.

Hona gure gomendioak:

Barne-kontrolerako antolakuntza-eredu egoki bat diseinatzea, eredu horretan kontu-hartzaileak edo auditoreak bere eginkizunak independentziaz eta eraginkortasunez betetzeko aukera emanen dion erakunde barruko hierarkia-maila baten aurrean erantzun dezan.

VI.3 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2007ko ekitaldian, 83,61 milioi eurokoak izan ziren eskubide aitortuak, eta haien gauzatze-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 87 izan zen. Hauei dagozkie:

	Aitortutako eskubideak	Sarrera guztien %	Aldea eskubideetan 2006/07	Kobrantzak
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	14.108.184	% 17	% 10	12.375.606
Transferentzia arruntak	62.984.703	% 75	% 12	54.805.118
Ondareko diru-sarrerak	623.395	% 1	% 66	623.395
Kapital-transferentziak	5.892.501	% 7	% 72	22.572
GUZTIRA	83.608.783	% 100	% 14	67.826.691

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, diru-sarrerak, guztira, ehuneko 14 handitu dira, honako hauen-gatik batez ere: egindako ikerketa-zerbitzuak direla eta diru-sarrera gehiago lortzeagatik; proiektuak eta lanak diruz laguntzeagatik; eta Nafarroako Gobernuak oinarrizko finantzaketarako eta Tuteran ikasketak ezartzeko egindako transferentziengatik.

Kobrantzak, 2007ko abenduaren 31n, sarreraren ehuneko 81 ziren; 2006an, berriz, kobrantzak sarreraren ehuneko 90 ziren.

2007an sortutako gastuak 75,70 milioi eurokoak dira, eta haien gautze-maila behin betiko kredituen ehuneko 79koa da. Atal ekonomiko hauei dagozkie:

	Aitortutako obligazioak	Gastu guztien %	Aldea gastuetan 2006/07	Ordainketak
Langile-gastuak	42.113.516	% 56	% 8	42.039.600
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	18.425.107	% 24	% 3	15.006.145
Finantza-gastuak	67.578		% 3.056	67.569
Transferentzia arruntak	2.548.426	% 3	-% 24	2.462.713
Inbertsioak	12.499.274	% 17	% 30	9.089.522
Kapital-transferentziak	49.068			0
GUZTIRA	75.702.969	% 100	% 8	68.665.549

Gastu guztietatik, ehuneko 40 irakaskuntzan erabili da, ehuneko 29 zuzendaritzan eta kudeaketan, eta ehuneko 12 ikerketan.

2007ko abenduaren 31n, gastuen ehuneko 91 zegoen ordainduta; 2006an, ordaindutako ehuneko hori antzekoa zen: % 92.

2006. urtearen aldean, gastuak ehuneko 8 handitu dira, langile-gastuak eta inbertsioak haztearen ondorioz nagusiki.

Gastuaren kudeaketa deszentralizatuta dago zenbatekoaren arabera. Hala, gastu-unitate funtzionalek (departamentuek, zerbitzuek, fakultateek

eta eskolek, besteak beste; 54, guztira, 2007. urtean), 15.000 eurokoak baino txikiagoak diren gastu arruntak eta inbertsioak kudeatzeko ahalmena dute (BEZa barne), erosketan zentralizatuen kasuan izan ezik.

VI.3.1 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

2007an, tasak, prezio publikoak eta aitortutako beste diru-sarrerak 14,11 milioi eurokoak izan zen; hau da, 2006an sortutakoak baino ehuneko 10 gehiago.

Diru-sarrera hauek fiskalizatu dira:

	Aitorrutako eskubideak	
	2007	2006
1. eta 2. zikloko irakaskuntza-matrikulak	6.829.818	6.732.358
Tituluak, kopia egiaztatuak eta trasladoak egitea	693.256	682.964
Kirol-instalazioak erabiltzea	436.744	393.403
Beste diru-sarrera batzuk	419.051	379.316
Gradu-ondoko ikastaroak	234.731	195.659
Esperientziaren Ikasgela	112.982	66.163
Itzulketak	32.710	10.779

Aztertutako diru-sarreraren kobrantza eta likidazioa, oro har, ezarritako arauen eta prozeduren arabera egin dira, eta zuzen kontabilizatu.

Hala ere, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

1. eta 2. zikloko irakaskuntzei dagokienez, eta nahiz eta matrikulazio-prozedura zehaztuta egon eta matrikulazioen eta haien kobrantzaren jarraipena egin, ez dago koordinaziorik matrikulak kudeatzeko programa informatikotik lortutako informazioaren eta kontabilitatetik lortutakoaren artean, eta, horren ondorioz, zailagoa da matrikulen kobrantzak eta sarrerak koadratzea, identifikatzea eta kontabilizatzea, bai eta ekitaldiaren amaierako zordunak zein diren zehaztea ere.

Unibertsitateak gestioak egin baditu ere, oraindik kobratu gabe dago zenbait kirol-talderi egindako kirol-instalazioen alokairua. Kirol-talde horien zorra, guztira, 1.123.953 eurokoa zen 2007ko ekitaldia ixtean (177.292 euro 2007. urtekoak dira, eta gainerakoa aurreko ekitaldietakoa, 2001etik hasita). 2007an kaudimen-gabeziarako egindako hor-

nidurak kirol-taldeen zor guztia hartzen du barruan.

Hona gure gomendioak:

Matrikulak kudeatzeko aplikazio informatikoe-tatik lortutako informazioa eta kontabilitatetik lortutakoa koordinatzea, eta denbora eta forma egokian kontabilizatzea egindako likidazioak, kobrantzak eta kobratu gabe dauden matrikulazio-sarrerak.

Beharrezko neurriak hartzea kirol-taldeei kirol-instalazioen erabilera eta ordaindu gabe dagoen zorra kobratzeko.

VI.3.2. Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak

2007an sortutako transferentzia arruntak 62.984.703 euro dira; hau da, diru-sarrera guztien ehuneko 75. Zenbateko osotik, 53.562.507 euro Nafarroako Gobernuarekin izenpetutako finantzaketa-hitzarmenetik datoz; kopuru hori honela banakatuta dago:

Finantzaketaren zertarakoa	Hitzarmenean aurreikusitakoak	Sortutakoak
Irakaskuntza eta ikerketa	48.406.950	48.406.950
Irakasleen ordainsari osagarriak	2.308.050	2.308.050
Proiektuak	677.507	1.113.331
Ikasketak Tuteran ezartzea	2.170.000	1.734.176
Guztira	53.562.507	53.562.507

Gobernuak 1.113.331 euro erabili zituen proiektuak finantzatzeko, hitzarmenean erabakitako zenbatekoa baino 435.824 euro gehiago; erabilitako kopuru hura Tuteran ikasketak ezartzeko bereizi bai baina baliatu ez zen ekarpenekoa izan zen. Transferentzia arrunten zertarakoa aldatzea aurreikusita dago hitzarmenean.

VI.3.3 Langile-gastuak

• Aurrekontuaren exekuzioa

2007an sortutako langile-gastuak 42 milioi eurokoak izan ziren; hau da, egindako gastu guztien ehuneko 56. Aurreko ekitaldikoekin alderatuta, ehuneko zortzi handitu dira.

Ez dira sartzen ikertzaile-irakasleen ikerketa-ordainsariak, ez baititu giza baliabideen zerbitzuak tramitatzen eta ez baitira langile-gastuak balira bezala kontabilizatzen. Ordainsari aldakor horiek ez dira kontuan hartzen PFEZren atxikipen-mota zehazteko.

Ez dago jasota Foru Komunitateak ikertzaile-irakasleen kostuak baimendu zituenik, ez eta 2007rako administrazio- eta zerbitzu-kostuak baimendu zituenik ere.

Ez da egiten langileen ordainsarien geroko kontrola eta, era berean, aurretiazko interbentzioan ez dira egiaztatzen ez hileroko aldaketak ez alten dokumentu bidezko justifikazioa, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan kontrakoa adierazi arren.

Langileen kudeaketarako informatika-programa bat ezartzeko bidean dago, giza baliabideen zerbitzuko bulegoetako datu-base informatikoen bidez kudeatzen diren jarduera guztiak integra ditzan.

2007ko abenduaren 31n kontabilizatutakoaren arabera, itzultzeko dauden nomina-aurrerakinen zenbatekoa nominen programan jasota daudena baino 12.069 euro txikiagoa da.

• Lanpostuen zerrenda

2007. eta 2006. urteetako abenduaren 31n, hauek ziren ikertzaile-irakasleei eta administrazio-ko nahiz zerbitzuetako langileei zegozkien lanpostuen kopurua eta egoera:

IKERTZAILE-IRAKASLEAK	2007	2006
Katedradunak	71	67
Titularrak	297	300
Irakaskuntza-kidegoak, guztira	368	367
Elkartuak	344	321
Laguntzaileak	51	60
Doktore laguntzaileak	49	34
Kontratututako doktoreak	31	25
Laguntzaileak	5	12
Ikertzaileak	6	10
Emerituak	3	2
Irakaskuntzako ordezkioak	1	
Kontratututako irakasleak, guztira	490	464
IKERTZAILE-IRAKASLEAK, GUZTIRA	858	831

Ez dago prozedurarik kontrolatzeko irakasleak benetan dauden irakatsi behar duten lekuan; hutsegiteak kasuan kasuko departamentuari jakinarazten zaizkio, baina ez giza baliabideen zerbitzuari.

	2007	2006
ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK		
Karrerako funtzionarioak	320	307
Behin-behineko funtzionarioak	47	77
Kontratu administratiboa dutenak	14	7
Behin-behineko langileak	9	1
ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK, GUZTIRA	390	392

2007ko abenduaren 31n, administrazio eta zerbitzuetako langileen 89 lanpostu bete gabe zeuden, eta horietatik 50 libreak ziren, eta gainerakoak gordeta zeuden. Bete gabeko lanpostu libreak urte hauetan sortu ziren:

Hasierako urtea	Plaza-kopurua
1995	1
1996	1
2002	3
2003	14
2004	2
2005	2
2006	3
2007	24
Guztira	50

Ez zen ez onartu ez argitaratu Administrazio-Zerbitzuetako Langileen lanpostuen zerrenda (2007. urtekoa); 2006. urteko zerrendarekiko aldatketak baino ez ziren onartu. Aldaketa horiek 2009ko maiatzean argitaratu ziren.

2006ko abenduan, Kontseilu Sozialak Administrazio-Zerbitzuetako Langileen araubide juridikoa funtzio publikoari buruzko foru legedira egokitzea onartu zuen, eta urtebeteko epea jarri zuen, hura abiarazteko tresna arautzailea onar zedin. 2009ko urrian, Gobernu Kontseiluak lantalde organikoa onartu zuen, eta Administrazio-Zerbitzuetako Langileei hura osatzen duten lanpostuak esleitzea.

- Langileen lagina

Ikertzaile-irakasleen eta zerbitzuetako administrazio-zerbitzuetako langileen ordainsarien lagin bat aztertu da, bai eta 2006an eta 2007an bi kidego horietarako egindako deialdian aukeratutako lanpostuak ere.

Azterketaren ondorioak hauek dira:

Orokorrean, ordainsariak indarreko araudiaren eta betetako lanpostuaren arabera dira, eta enpleguaren administrazio- eta familia-zirkuntantziek –langileen espedienteak jasotzen dituzten justifikatuta daude.

Langileen hautaketari dagokionez, aplikagarria den legediaren arabera egin da, eta meritu-, gaitasun- eta publikitate-printzipioak betetzen direla bermatu da.

Hona gure gomendioak:

Ekitaldi bakoitzeko administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrenda osoa onartzea eta argitaratzea.

Ikerketa-ordainsarien ordainketa tramitatzea giza baliabideetako zerbitzuan, haiek nominan sartzeko eta langile-gastuetako 1. kapituluaren kontabilizatzea. Ikertzaile-irakasleen PFEZren atxikipentasa zehaztea, kontuan hartuta bai ordainsari fin-koak bai aurreikus daitezkeen aldagarriak.

Langileen gastuen (2007an egindako gastu guztien ehuneko 56) kontu-hartzea egitea aurrekontua gauzatzeko oinarrietan adierazitako eran.

Kontrol-mekanismoak jartzea jakiteko zenbat denbora ematen duten irakasleek irakasten eta ikertzen eta egokitu zaien ordutegia betetzen duten ala ez.

Ekitaldiaren amaieran kitatu gabe dauden kontabilizatutako nomina-aurreerakinak eta nominen programan jasotakoak bateratzea.

VI.3.4 Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak

2007an ondasun arruntak eta zerbitzuak eros-teagatik sortutako gastuak 18,42 milioi euro izan ziren. Unibertsitatearen gastu guztien ehuneko 24 dira. Haien gauzatzeko-maila behin betiko kredituen ehuneko 68 izan zen. 2006ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 3 handitu ziren.

Gastu hauen lagin bat berraztertu da:

- Bulegoko materialaren, makinen, instalazioen eta tresneriaren erosketak

- Azahar mintegiaren antolaketa

- Gastu juridikoak.

- 2006ko ekitaldiaren aurrekoetan esleitutako kontratuak: eraikinen eta instalazioen garbiketa eta bidaia-agentzia; biak 2003koak.

2006an eta 2007an esleitutako kontratu hauen adjudikazioa ere fiskalizatu da:

- zaintza eta segurtasuna, testuak euskaratzea, publikitatearen gestioa eta prentsa-kioskoaren gestioa eta ustiapena.

Fiskalizazioaren ondorioak hauek dira:

Gastuak, orokorrean, baimenduta, justifikatua eta behar bezala kontabilizatuta daude, eta aurrekontua gauzatzeko oinarrietan adierazitakoaren arabera tramitatzen dira.

Administrazio-kontratazioari dagokionez, oro har, kontratazio-espediterearen tramitazioa, esleipena eta fiskalizatutako kontratuen exekuzioa kontratuei buruzko legedi aplikagarriaren arabera egin dira.

Hala ere, akats hauek aipatu behar ditugu:

– Beti ez da egin aurreiazko kreditu-atxikipe-na, 3.000 eurotik gorako balioa duten bulegoko materialaren, makinaren, instalazioen eta tresnerien erosketara deszentralizatueta.

– 2007an egindako gastu juridikoak 102.634 eurokoak izan dira. Zenbateko horretatik, 77.978 euro hilabeteko 6.000 euro inguruko fakturak aurkezten dituen profesional baten gastuak dira, baina ez dago adjudikazio horretarako kontratuzko prozedurari dagokion tramitaziorik.

– Bidaia-agentzia: 2007an, gastua 423.000 eurokoa izan zen. Emandako zerbitzua ez zitzairen egokitu kontratuaren baldintzei; kontratua 2003an sinatu eta urtero luzatu zen. Zerbitzuaren behar berriek edo kontratatutako baldintzetan izandako aldaketek ez zuten ekarri kontratua aldatzea. 2009an, Unibertsitateak beste kontratu bat esleitu zuen bidaia-agentziaren zerbitzua betetzeko.

– Testuak euskaratzea: testuen itzulpenak entregatzeko epea, oro har, ez da bete.

Hona gure gomendioak:

Aurreiazko kreditu-atxikipe-na egitea 3.000 eurotik gorako erosketara deszentralizatueta, aurre-kontua gauzatzeko oinarrietan adierazitakoaren arabera.

Gastu juridikoak kontratatutako zenbatekoari dagokion esleipen-prozeduraren arabera esleitzea.

Testuen itzulpenak erabakitako epeetan entregatzen direla kontrolatzea.

VI.3.5 Transferentzia arruntengatiko gastuak

Unibertsitateak 2007an egindako transferentzia arruntak 2.548.426 euro izan ziren: gastu guztien ehuneko hiru. 2006. urtearen aldean, ehuneko 24 jaitsi ziren, beken eta ikerketarako laguntzen zati bat ikertzaileekin egindako kontratuek ordeztu zutelako.

Beka hauen lagin bat berraztertu dugu:

Xedea	Gastua, 2007
Ikerketa:	
Teknikarien prestakuntza eta gaikuntza	371.885
Proiektuak eta lanak	62.086
Nazioartean mugitzeko programak	552.480
1. eta 2. zikloko ikasleen arteko lankidetzak	328.125

Egindako azterketaren ondorioak hauek dira:

- Teknikariak prestatzeko eta gaitzeko beka

Nafarroako Gobernuak ematen ditu beka horiek eta egiten du horietarako deialdia; Unibertsitateak Gobernuaren laguntzaile gisa jokatzeko du.

Egiaztatu dugu Unibertsitateak, oro har, bete egin dituela deialdian jasotako baldintzak: beka-ordainu beharrekoa tramitatu da, eta Nafarroako Gobernuari lana burutu izana eta ordainduta-gastuak justifikatu zaizkio.

- Ikerketa-proiektu eta -lanetarako beka

Beka horiek desagertu egin dira, 2006ko irailean ikertzaileak proiektuen, LOUko 83. artikuluko kontratuen eta Unibertsitateko ikerketa-taldean kontura kontratatutako araudia onartzearen ondorioz. Araudi horretan esaten da ikerketa-proiektuetan parte hartzen duten kontratatutako langileak

izanen direla. 2007an, aipatu araudia onartu aurretik eskatutako bekei eutsi egin zaie.

Beka horiek emateko erabilitako prozedura, deialdiaren berri emateko prozedurari eta eskabi-deak aurkezteko jarritako epeari dagokienez, ez da nahikoa publizitate-, gardentasun- eta konkurrentzia-printzipioak bermatzeko.

Ez daude jasota aurrekontua gauzatzeko oinarrietan dirulaguntzak tramitzatzeko aipatzen diren dokumentu guztiak; izan ere, besteak beste, hauek falta dira: zein diren laguntzaren helburuak; zer epe dagoen haiek lortzeko; zer kostu aurreikusten diren; eta oinarri arautzaileak zuzenbidearen arabera direla esateko deialdiaren aurretik egin beharreko txosten juridikoak.

- Nazioartean mugitzeko laguntzak

Laguntza horiek gastuak dira, kanpo-erakunde batzuetatik jasotako finantzaketa eratxikia dute-

nak. Finantzaketa hori ez bada nahikoa, Unibertsitateak hilean gutxieneko bat ziurtatzen die ikasleei (240 euro 2006-2007 ikasturtean), ikasleak Nafarroako Gobernutik zuzenean jasotako laguntza kontuan hartu ondoren.

ERASMUS programarako laguntzen lagin bat aztertu ondoren, akats hauek nabarmentzen ditugu:

Funtsak ikasleen artean banatzean, hutsegiteak atzeman ditugu.

Ez dira kontabilizatu eta ordaindu agindutako gastu batzuk (1.226 euro).

Beti ez dago jasota gastuaren baimenaren eta laguntza ordaintzeko aginduaren fiskalizazioa.

Laguntza horiei buruzko kontabilitate-informazioan hutsegiteak daude, gastuak eta sarrerak dagozkien kontusaileri oker egoztearen ondorioz.

Azpmarratu behar da eskainitako 440 ERASMUS plazetatik 187 bete zirela.

- Lankidetzak-bekak

Gure uztez, haiek emateko prozedura (deialdiaren berri emateko prozedurari eta eskabideak aurkezteko jarritako epeari dagokienez) ez da nahikoa publikitate-, gardentasun- eta konkurrentzia-printzipioak betetzen direla bermatzeko.

Bekadunen izendapena haien lankidetzak bene-tan hasi ondoren egin zen.

Lankidetzak egiten den zentroen eskabideen ebaluazioa arrazoitu gabea izaten da eta, orokorrean, ez du datarik eta sinadurarik.

Gainera, zentro batzuek beken kudeaketarako unitateari ezer gutxi laguntzen diotela ikusi da; horren adierazgarri: batzuetan, ez dute jakinarazi ikaslea jardunean hasi dela; bestetuetan, ez dute baieztatu lankidetzak indarrean dagoenik hilabete bakoitzaren amaieran; gainera, zenbaitetan, ez dute aurkeztu bekaren ebaluazioko amaierako galdera-sorta, ez eta bekadunen jarduerari buruzko azken memoria ere.

Akats horietako batzuk 2008-2009 ikasturtean deitutako lankidetzak-beketan zuzendu dira.

Hona gure gomendioak:

Deialdia zabaltzea eta eskabideak aurkezteko epe egokia jartzea, dirulaguntzak ematean publikitate-, gardentasun- eta konkurrentzia-printzipioak betetzen direla bermatzeko.

Ikerketa-proiektu eta -lanetarako laguntzak aurrekontua gauzatzeko oinarrien arabera tramitazioa, eta haietan nahiz dirulaguntza arautzeko oinarrietan jasotako txosten eta jarduerak guztiak egitea.

VI.3.6 Inbertsioak

Unibertsitateak 12,50 milioi euro inbertitu zituen 2007an; nagusiki, hauek:

	Aitortutako obligazioa
Eraikinak eta bestelakoak	5.850.112
Irakaskuntzako ekipamendua	2.055.382
Aldizkariak	1.343.571
Informazio-prozesuetarako ekipoak	499.816

Eraikin eta bestelakoetan Tuterako campusean egindako obrak sartzeko dira (4.132.668 euro); Nafarroako Gobernuak finantzatu zituen osorik obra guztiak.

Irakaskuntzako ekipamendurako erositakoekin lagin bat eta 2006an nahiz 2007an esleitutako kontratu hauek aztertu ditugu:

Obrak:

Kontratuaren xedea	Esleitzeko prozedura/ modua edo irizpidea	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa
Zero ikasgelaren birmoldaketa	Irekia, eskaintza onenarentzat	1.549.992	1.479.932
Ikasgelategia suteetatik babestea	Irekia, lehiaketa	195.043	193.036
-I. fasea	Negoziatua, Europar	298.984	285.503
-II. fasea	Batasuneko publizitaterik gabekoa		
Tuterako campusa eraikitzea	Irekia, lehiaketa, Europar Batasuneko publizitatearekin	13.700.000	12.261.500
Reina Sofia ospitalearen egokitzapena	Irekia, presako lehiaketa	429.271	395.844
-I. fasea		176.604	161.282
-II. fasea			

Hornidurak:

Kontratuaren xedea	Esleitzeko prozedura/ modua edo irizpidea	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa
Prototipaje-makina	Irekia	226.200	226.200
Mikroskopioa	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	82.360	82.360
Esku-oheak Tuterarako	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	21.783 23.800 21.900	21.783 21.840 21.840
Argitalpenak eta datu-baseak	Irekia, Europar Batasuneko publizitatearekin	921.285	806.089

Orokorrean, kontratazio-espeditentearen tramitazioa, esleipena eta kontratuaren exekuzioa kontratuari buruzko legediaren arabera egin dira, eta gastuak onartu, justifikatu, zuzen kontabilizatu eta inbentariatu egin dira; hala ere, aztertutako kontratuetan, eskatutako bermea kontratuaren balio estimatuaren ehuneko lautik gorakoa da, eta ez dago jasota horniduraren edo obraren hartze formalak, ez eta obraren zuinketa-akta ere.

Tuteran campusa eraikitzeari dagokionez, 25/2002 Foru Legearen bidez onartu zen unibertsitate-ikasketak jartzea. Lege horretako arrazoien azalpenean hau esaten da: "... egindako ikerketetatik argi eta garbi ondorioztatzen den bezala, guttiz egokia da Nafarroako Unibertsitate Publiko jada kontsolidatuaren eskaintza osatzea eta hori Nafarroako beste leku batzuetara ere zabaltzea, Erriberrara zehazki; hala, eskaintzen diren titulazioen kopurua zabaldu da eta, horretarako, egungo jar-

duera sozioekonomikoak asko eskatzen dituen eta, beraz, lan-aukera ugari ematen dituzten beste titulazio batzuk gehitu dira".

Unibertsitateak txosten bat egin zuen 2004an Tuteran aurrez aurreko unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruz, eta kontuan hartu zuen ikasketak hauek abiarazteko aukera: Fisioterapiako diplomatura, Diseinu Industrialeko Ingeniaritza Teknikoa eta Industria Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa. 2007-2008 ikasturtean, titulazio hauek irakasten ziren: ingeniaritza teknikoa (mekanika espezialitatea) eta fisioterapia; hurrenez hurren, 37 eta 98 ikasle ari ziren.

Hona gure gomendioak:

Obren eta horniduren onarpen-akta egitea.

Bermea kontratuaren balio estimatuaren arabera zehaztea.

VI.4 IKERKETA

• Ikerketa-jarduera

Ikerketa garatzea, ezagutza gizarteratzea eta ikertzaileak prestatzea dira Unibertsitatearen funtsezko helburuetako bat.

2007an, ikerketa kudeatzeko antolaketa-egitura aldatu zen, eta Ikerketa Zerbitzua sortu, Ikerketa Errektoreordetzari atxikita.

Kanpotik finantzatutako ikerketa-jarduera honako hauetan gauzatzen da: proiektuak (laguntza publiko finantzatuta) eta ikerketa-kontratuak (kontratu egiten zaien pertsonak, erakunde publikoak eta pribatuak finantzatuta).

Ikerketa-taldeak dira ikerketaren funtsezko unitateak, eta departamentu bateko edo batzuetako

ikertzailez daude osatuta. 2007an, 824 ikertzailez osatutako 101 ikerketa-talde zeuden. Ikerketa-taldeen katalogoan dago adierazita taldeak nork osatzen dituzten eta zein diren haien ikerketa-ildoak.

2007. urtearen amaieran, Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalak Unibertsitateko 71 ikerketa-talde ebaluatu zituen; taldeok prest agertu ziren ebaluatuak izateko. 28 taldek bikaintasun-kalifikazioa jaso zuten eta 16ri "goraka" ari direlako izendapena egokitu zitzairen, haien zientzia- eta ikerketa-ahalmena kontuan hartuta.

• Aurrekontuaren exekuzioa eta kontabilitate-kudeaketa

2007an, ikerketa-jardueren ondorioz sortutako gastuak (9.008.654 euro, guztira) hauek izan ziren:

	Langileak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	Transf. arruntak	Inberts.
Ikerketa Errektoreordetza	2.680.429	3.731.434	1.174.627	974.184
Ikerketari laguntzeko zerbitzua		91.790		1.795
Agrobiotekn. eta NB Institutua		160.400		57.976
OTRI	118.177	6.289		11.553
GUZTIRA	2.798.606	3.989.9131	1.174.627	1.045.508

Aurreko gastuei 241.508 euro gehitu behar zaizkie; kopuru hori "proiektuaren arabeko departamentu-gastuak" moduan dago kontabilizatuta, eta ikerketari eratzikitako sarrerekin finantzatu da.

Ikerketa-gastuak beren izaera ekonomikoari dagozkion aurrekontu-kontzeptuei egozten zaizkie:

langile-gastuak, ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketak, transferentzia arruntak eta ibilgetu materialean egindako inbertsioak. Ekitaldiko gastutzat hartzen dira eta ez dira kapitalizatzen.

2007an, ikerketa finantzatzeko sortutako sarrerak (10.385.274, guztira) hauek izan ziren:

	Aitortutako eskubideak
OTRI kontratuak	2.454.917
Zeharkako kostuak finantzatzeko sarrerak	1.086.543
Dirulaguntzak:	
– Hezkuntza eta Kultura Ministerioa	430.813
– Zientzia eta Teknologia Ministerioa	3.266.254
– Nafarroako Gobernua	2.283.019
– Iruñeko Udala	10.986
– Finantza-entitateak	413.267
– Enpresak	35.550
– Beste entitate batzuk	106.383
– Unibertsitateak	29.775
– Europar Batasunarenak	267.767

Ikerketa-gastuen eta haien finantzaketa eratzikiaren kontabilitate-kudeaketa aldi baterako gastu-unitateen bidez egiten da.

Handiegia da aldi baterako gastu-unitateen kopurua, ez delako itxi, besteak beste, amaitutako ikerketa-proiektu eta -kontratuei dagozkien unitateen kontabilitatea.

Egoera horrek zaildu egiten du kontabilitate-eraginkortasuna, bai eta ikerketa-proiektuen eta -kontratuen saldoaren kontrola ere.

Azaldutako akatsak zuzentzeko, Unibertsitateak ikerketa-proiektuen eta -kontratuen itxiera erregulatzeko araudi bat onartu zuen. Onartutako ildo-

ei jarraiki, 2006ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldi baterako gastu-unitateak aztertu zituen eta amaitutako ikerketa-proiektu eta -kontratu batzuen kontabilitate-saldoa garbitu zuen.

Kontabilitatea kreditua "ikerketa-politsetara" transferituz erregularizatu zen; poltsa horiek ikerketari lotutako aldi baterako gastu-unitateak dira. 2008an, gastuak aipatu poltsa horietan zordunduta zertzeko araudia onartu zen.

- Ikerketa-proiektuen eta -kontratuen lagina

2006an eta 2007an onartutako ikerketa-proiektu eta -kontratu hauek aztertu ditugu:

Xedea	Aurreikusitako kostua	Finantzaketa
Foru Komunitateko langabeen, landunen eta ez-aktiboan gutxi gorabeherako kopurua	47.400	Kontratua
Inprimaketa erdi birakorreko makinaren produktibitatea hobetzea	83.520	Kontratua
Nekazaritzako lurrek karbonoa bahitzeko duten gaitasunaren ebaluazioa	45.700	Nafarroako Gobernua
Biodiesela ekoizteko katalizatzaile berriak	29.975	Nafarroako Gobernua
Orratz eta azalerako EMG seinaleak eta erresonantziako irudiak aztertzea	24.563	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa
Kontrol sendoko metodologiak, sistema ez-linealak, aldagai anitzekoak eta parametro banatuak dituztenak gobernatzeko.	131.164	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa
Gune topologiko ordenatuak: emaitza analitikoak eta diziplina anitzeko aplikazioak	14.520	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa
Alfahidroxienonak erabiltzea katalisi asimetrikoan	43.802	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa

Orokorrean, ikerketa-proiektuetarako langileak ikertzaileak kontratatzeke araudiaren arabera kontratatu dira.

Ikerketa-proiektuetan, dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen diren neurrian, gastuak deialdian adierazitako moduan justifikatzen dira erakunde finantzatzailearen aurrean, eta haien exekuzioa baimendutako kontzeptu eta zenbatekoei egokitzen zaie.

Egokia da, oro har, ikerketa-proiektu eta -kontratuei eratzikitako gastuen eta sarreraren kontabilitate-kudeaketa eta -kontrola.

Hala ere, akats hauek aipatuko ditugu:

Ikerketa-kontratuetatik sortutako sarreraren ehuneko 10 Unibertsitatearen gastu orokorretara bideratu zen. 2007. urteko aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ehuneko 20 bideratzeko adierazten zen, baina ehuneko horren aplikazioa eten egin zen errektorearen Ebazpen bidez.

Ikerketa-proiektuetarako lankide eta laguntzaileen kontratazioan, deialdia argitaratzeko bideek eta eskabideak aurkezteko epe laburrak ez dute behar bezala bermatzen publizitate- eta berdinta-

sun-printzipioak beteko direnik langileen aukeraketan.

Bestalde, espedientean ez dago jasota kontratatutako pertsonak eskatutako baldintzak bete dituela justifikatzeko emandako dokumentazioa.

Ikerketa-kontratuak ez daukate langileak kontratatzeke kontusailen, erosi beharreko materialaren, bidaia-gastuen eta kontratatutako ikerketarekin zerikusia duten beste gastu batzuen aurrekontu banakaturik.

Orokorrean, Gobernu Kontseiluak ikerketa-kontratu sinatu ondoren baimendu du kontratazioa.

Erakunde finantzatzaileak onartutako gastuen zenbatekoa Unibertsitateak justifikatutako gastuena baino txikiagoa izan eta, ondorioz, jasotako dirulaguntzak itzultzen direnean, beti ez daude behar bezala identifikatuta onartu gabeko gastuak, edo haiek ez onartzeko arrazoiak.

Zeharkako kostuak finantzatzeko jasotako funtsen itzultzetan aurrekontuz kanpoko kontusailen kontabilizatzen ziren saldirik gabeko proiektuen eta kontratuen kasuan.

2008an, saldirik gabeko proiektuen itzulketari lotutako aurrekontuz kanpoko saldoa erregularizatu zen (48.400 euro), eta kontusail espezifikoko bat sortu zen gastuen aurrekontuan, azaldutako egoera konpontzeko.

Aipatu akats orokorrak ez ezik, honako hauek ere azpimarratzen ditugu aztertutako kontratu eta proiektuei dagokienez:

- Foru Komunitateko langabeen, landunen eta ez-aktiboen gutxi gorabeherako kopurua

Dieta- eta kilometraje-gastuak kontratuko gastu guztien ehuneko 76 dira, eta irakasle arduradunek berek adierazitakoaren bidez justifikatzen dira, lehen seihileko ia egun guztietan bidaiatzen dutela esaten baitute.

2008an, 30.886 euro gastatu dira, kontratuak 2007ko martxoaren 30era arte irauan arren.

- Inprimaketa erdi birakorreko makinaren produktibitatea hobetzea.

Sei kontratu berri ziren, baina, hirutan, erabakitako epea arauzko gutxienekoa (hiru hilabete) baino txikiagoa izan zen, eta ez dago jasota horren justifikazioa; gainera, kontratu-berritze guztiak ez daude fiskalizatuta.

Kontratututako langileen bidaien justifikazioek ez dute proiektuaren arduradunaren oniritzia.

- Nekazaritzako lurrek karbonoa bahitzeko duten gaitasunaren ebaluazioa.

Kontabilitatean, ez zitzaizkion egotzi proiektuari harekin zerikusia zuten gastu guztiak; adibidez, dirulaguntza eman baino lehenago egindako gastu

ugari (4.587 euro) irakaskuntza garatzeko programako gastu gisa kontabilizatu ziren.

Benetan emandakoak baino sarrera gehiago aitortu dira (753 euro gehiago), Nafarroako Gobernuak ez zituelako onartu gastu justifikatu guztiak.

Ez da egin 3.000 eurotik gorako gastu bat egin baino lehenagoko kreditu-atxikipena, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan kontrakoa adierazita egon arren.

- Alfahidroxiiononak erabiltzea katalisi asimetrikoan.

Proiektuen kasuan, jasotako sarreretatik kopuru bat deskontatzen da (proiektuaren kostu zuzenen ehuneko 21), Unibertsitatearen eta Departamentuaren zeharkako kostuak bi zati berdinetan finantzatzeko.

Proiektu honetan, dagozkion sarrera guztiak departamentuaren zeharkako kostuak finantzatzeko erabili dira.

Hona gure gomendioak:

Amaitutako ikerketa-kontratu eta -proiektu guztien kontabilitate-saldoak aztertzen eta garbitzen jarraitzea.

Langileak hautatzean, publizitate- eta berdintasun-printzipioak betetzen direla bermatzea, deialdiaren berri behar beste ematea eta eskabideak aurkezteko behar adinako epea jartzea.

Erakunde finantzatzaileak onartu gabeko gastu justifikatuak identifikatzea eta aztertzea ea diruz lagundutako jardueraren zer-nolakoari dagozkion eta ea dirulaguntza arautzen duten oinarrietan adierazitako epean gauzatu diren.

VI.5 IBILGETU EZ-FINANTZARIOA

2007ko abenduaren 31n, 159.420.439 eurokoa da Unibertsitatearen ibilgetu ez-finantzarioa, eta hauei dagokie:

	2007/12/31	2006/12/31
Ibilgetu ez-materiala	5.440.124	4.821.419
Amortizazioak	-4.058.656	-3.434.335
Ibilgetu materiala	246.787.416	234.939.483
Amortizazioak	-88.748.445	-80.946.672

la ibilgetu ez-material guztia aplikazio informatikoei dagokie.

2007an egindako inbertsioak inbentariatuta daude, bai eta ibilgetua osatzen duten ondasunak ere.

VI.6 DIRUZAINNTZA ETA ALDI BATERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Hau da Unibertsitatearen finantza-kontuen saldoa:

	2007/12/31	Sortutako korrituak
Aldi baterako finantza-inbertsioak	7.021.848	291.145
Diruzaintza	7.415.003	205.001

Kontuok aztertuta, hauek nabarmentzen ditugu:

Orokorrean, ez dira aztertzen finantza-erakundeek ordaindutako korritu edo interesak.

Finantza-inbertsioen interesei dagokienez, interes-tasak ehuneko 4,48tik ehuneko 1,5era bitartekoak dira antzeko baldintzatan epe laburrera egindako gordailuen kasuan.

2007an, kontu korrante batean funtsak izan ziren inolako saririk gabe, nahiz eta finantza-erakunde berean ehuneko 3,04ko interes-tasako beste kontu korrante bat irekita eduki. Hala, 2007ko abenduaren 31n, saririk gabeko kontuaren saldoa 1.027.812 eurokoa zen (611.759 euroko batez besteko saldoa), eta saria ematen zuen kontuarena 389.477 eurokoa (258.511 euroko batez besteko saldoa).

Ez da diruzaintza-planik edo -aurrekonturik egiten.

Diruzaintzako soberakinak ezartzeari dagokienez, gerenteak ahala du diruzaintzako inbertsioak egiteko 1.800.000 euroko zenbatekoraino. Zenba-

Ondasunen aseguruari dagokionez, aseguratu-tako zenbatekoa ez da aldatu 2004. urtetik.

Hona gure gomendioak:

Aseguruen poliza berraztertzea, kontratatutako estaldura egiaztatzeke, bai eta ondasun guztiak aseguraturata daudela ere.

teko handiagoen kasuan, ez dago adierazita nor baimendu behar dituen. Araurik ezean, egun eta erakunde berean egindako finantza-inbertsioak zatikatu egiten dira 1.800.000 eurotik gorakoak ez diren zenbatekoetan.

Hona gure gomendioak:

Finantza-erakundeek ordaindutako interesak berraztertzea, eta hitzartutako interesei nahiz erabakitako likidazio-aldiari dagozkiela egiaztatzea.

Diruzaintzako funtsak ahalik eta errentagarritasun handiena lortzeko eran kudeatzea, kontuan hartuta kontu korranteetan eta finantza-inbertsioetan eskaintzen diren korrituak.

Egiten den diruzaintza-aurrekontuan aldi baterako aurreikusitako kobrantzak eta ordainketak jasotzea, eta haiek betetzen direla egiaztatzea, zer baliabide dauden jakiteko eta erabaki egokiak hartzeko kobrantza eta ordainketen politikari eta diruzaintzako soberakinak ezartzeari dagokienez.

1.800.000 eurotik gorakoak diren aldi baterako finantza-inbertsioen baimena arautzea.

VI.7 2005-2008 PLAN ESTRATEGIKOA

Bost lan-ardatzetako bakoitzean (prestakuntzan, ikerketan, langileen esparruan, zerbitzuetan nahiz baliabideetan) dauden helburu operatiboak lortzeko plan estrategikoan zehaztutako jarduerak lehenetsita daude, baina ez daude programatuta denboran, eta ez daukate bitartekorik esleituta.

Ez da adierazlerik zehaztu plan estrategikoan jarritako helburuak zer neurritan betetzen diren jakiteko.

2005. eta 2006. urteetan egindako jardueren jarraipen-txostena egin zen 2006an. 2007ko jardueren

jarraipen-txostena, 2008ko jarduerenarekin batera, 2009an egin zen.

2007ko aurrekontuan, 777.507 euro esleitu ziren plan estrategikoarekin zerikusia duten proiektu batzuetarako. Zenbateko horretatik 197.780 euro gastatu ziren.

Hona gure gomendioak:

Adierazleak zehaztea jakiteko zer neurritan bete diren plan estrategikoetan jarritako helburuak.

VII. UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOAREN LEGEZKOTASUNAREN ETA UNIBERTSITATEAK ESLEITZEN DIZKION JARDUEREN AUDITORIAREN ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

=> Urteko kontuak

Fundazioaren 2007. urteko kontuak kanpo-auditore batzuek ikuskatu zituzten, eta aldeko iritzia eman zuten.

Hauek dira: balantzea, emaitzen kontua, inbentarioa, jardueren memoria eta kudeaketa ekonomikoa, zeinaren barruan finantzaketa-taula eta aurreko urteko gastuen eta sarreren aurrekontuaren likidazioa baitaude.

Patronatuko Batzordeak onartu zituen, eta Unibertsitatearen urteko kontuei gehitu zitzaizkien, Kontseilu Sozialak onar zitzen.

Fundazioak bere estatutuaren adierazitako obligazioak bete ditu kontabilitateari, auditoriari eta aurrekontuei dagokienez.

2007an, Fundazioko Zuzendaritza Batzordeak 2007-2009 aldirako plan estrategikoa onartu zuen.

=> Administrazio-kontratazioa.

2006an eta 2007an adjudikatutako kontratu hauek berrikusi dira:

- Atzerriko ikasleen ostatatze-zerbitzuaren kontratazioa 2006tik 2008ra bitarteko urteetarako

- Material suntsikorraren hornitzailea aukeratzeari 2007rako

- Fotokopiagailua erostea
- Bost ordenagailu erostea

Orokorrean, publizitate- eta konkurrentzia-printzipioak bete egin dira aztertutako kontratuen esleipenean, kontratuen legeari eta erosketak egiteko Fundazioak onartutako araudiari jarraiki.

Kontratu horietatik ondorioztatutako gastuak onartu, justifikatu eta ordaindu egin dira. Erositako hornidurak inbentariatu egin ziren.

=> Langileen hautaketa

Fundazioak, orokorrean, publizitate-, berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete ditu langileak kontratatzean.

=> Unibertsitatearen mandatua

2007an, Unibertsitateak jardura hauek agindu zizkion Fundazioari: lan-munduan sartzeko politikak garatzea eta LADE-zuzenbideko ikasleen nazioarteko praktikak antolatzea; kultura-jardueren antolakuntza; ikasketa berekiak kudeatzea eta udako nahiz udazkeneko ikastaroak antolatzea; Goi Mailako Hizkuntza Zentroaren kudeaketa; eta esperientziaren ikasgela antolatzea Tuteran.

Mandatua agindutako jarduerak hasi ondoren onartu zen.

Agindutako jardura hauen kudeaketa berrikusi da:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitza	
			aurreikusia	benetakoa
Enplegua	3.723.566	3.745.848	60.494	-22.282
Titulu berekiak	368.512	408.411	-51.069	-39.899
Goi Mailako Hizkuntza Zentroa	985.617	1.431.019	-665.704	-445.402

Orokorrean, mandatuaren kudeaketa ekonomikoa ezarritako araudiaren arabera egin zen. Fundazioak txostenak bidali zituen Unibertsitateari agindutako jardueren betetze-maila jakinarazteko.

Agindutako jardueraren kudeaketan gertatutako defizita finantzatzen dio Unibertsitateak Fundazioari; 2007an, guztira, 650.261 euro izan ziren.

Fundazioak defizita kalkulatzeko, barruan sartzen ditu agindutako jarduerarekin zerikusia duten sarrera eta gastu guztiak.

Gastuen artean, hauek egozten ditu: zuzeneko gastuak, zeharkakoak (orokorrak eta jarduerari lotuak); eta hauek, nagusiki, "Unibertsitateari egindako fakturengatik lortutako sarrera garbiak" kontzeptuaren barruan: Unibertsitateko telefono-gas-

tuak; jarduerarako hasieran aukeratutakoak ez diren ikasgelen alokairua (hasieran aukeratutakoak ez dira ordaintzen); eta Unibertsitateari erositako material suntsikorra. "Fakturengatik sarrera garbiak" kontzeptuaren barruko gastu horiek badute beren konpentsazioa: alde batetik, Unibertsitateko langileen hizkuntza-matrikulei dagozkien diru-sarrerak; bestetik, hizkuntza-probak prestatu eta zuzentzeagatik lortutako diru-sarrerak.

Fundazioak, informazioa zabaltzea beste helbururik ez zuela, Goi Mailako Hizkuntza Zentroko zuzendariaren gastuak (55.630 euro) eta Tuterako Dekano Jauregiaren alokairua (6.309 euro) jaso zituen bere kontabilitateko egoera-orrietan (biak Unibertsitatearen kontura), bai eta agindutako jardueren kudeaketan erabilitako ikasgelak zirela-eta

egindako gutxi gorabeherako kalkuluaren emaitza ere (250.164 euro).

Bai titulu berekien kudeaketan bai Goi Mailako Hizkuntza Zentroarenean izandako defizita aurreikusitakoa baino nabarmen txikiagoa izan da, batez ere egindako jardueraren gastu zuzenak jaistearen ondorioz.

=> Enplegua

Unibertsitateak enpleguarekin zerikusia duten jarduerak agindu dizkio Fundazioari, honako hauek, hain zuzen: lan-munduan sartzeko politiken garapena (praktika-programak eta lan-eskaintzen kudeaketa) eta laguntza-jarduerak (batez ere antolatutako praktiken emaitzen azterketa).

Enplegu-arloa da, diruaren ikuspuntutik, Fundazioaren arlo garrantzitsuena.

Arlo horretako sarreraren eta gastuen lagin bat aztertu dugu, eta justifikatuta daudela eta zuzen sortu direla egiaztatu dugu.

Enpresen enplegu-eskaintzei dagokienez, Fundazioak, 2006. urtera arte, haiek jaso, iragarri eta enpresetara hautagaiak bidali baino ez zuen egiten. Lan hori doakoa zen. 2007. urteaz geroztik, Fundazioaren esku-hartzea eraginkorragoa izan da, hautagaiak bilatu eta aurrez hautatu ditu enpresetara bidaltzeko, eta kobratu egin ditu zerbitzu horiek.

2006an, 390 eskaintza gestionatu ziren. 2007. urterako, 310 eskaintza eta 232.500 euroko sarre-
rak zeuden aurreikusita. Aurreikuspen horiek ez ziren bete, eta 75 enpresaren sarrerak lortu ziren (53.875 euro).

Egiaztatu dugu Fundazioak hauek guztiak egiten dituela: jasotako eskaintzen berri eman; eskatutako baldintzak betetzen dituzten tituludunei jakinarazi; hautagaiak probak egin; eta haien meritua ziurtatu. Enpresak aukeraketa Fundazioak bidali dizkion hautagaien artean (hirutik seira bitartean) egiten du. Jasota daude Fundazioak egindako probak eta ebaluazioak.

Fundazioak kudeatzen dituen praktikak bost programatan banatzen dira: ikasleen praktikak, tituludunenak, tutoretzakoak, nazioartekoak eta teknologoenak.

Fundazioak antolatzen dituen praktiketan jarraitu beharreko prozedura arautu du, eta haien gara-

pen-faseak zehaztu ditu hasten direnetik amaitu arte: informatzea, eskaintzak lortzea eta zabal-
tzea, bitartekotza, administrazio-kudeaketa, ebaluazioa eta txostenak egitea.

Praktika-mota guztien lagin batean egiaztatu dugu Fundazioak prozedurari jarraitu diola eta antolatutako praktikaren garapen-faseetako bakoitzean ezarritako baldintzak bete dituela. Kasu guztietan egiaztatu da eskatutako baldintzak betetzen zitzutela bai enpresak eskaintutako praktikak bai hautagaiek.

Aurreikusitako helburuak zer neurritan betetzen diren jakiteko, adierazle batzuen kalkulua egiten da; besteak beste, lan-munduratzearen adierazlea, laguntza-jarduerena, praktikena eta lan-eskaintzena eta orientazio nahiz informazioarena kalkulatu dira. Gestoreen eta aholkularien jardueraren jarraipena ere egiten da.

=> Goi Mailako Hizkuntza Zentroa eta titulu berekiak

Goi Mailako Hizkuntza Zentroari eta titulu berekiei dagozkien 2007ko diru-sarreraren eta gastuen likidazioa kanpo-auditoreek ikuskatu dute, eta horiek esan dute ez dagoela kontraesanik jardueren memoriaren, behin betiko likidazioaren ziurtagiriaren eta urteko kontuen artean.

Plan estrategikoan zehaztutako helburuen jarraipena zenbait adierazle kalkulatu egiten da jardueren memorian. Ez da adierazlerik zehaztu jarritako helburu guztiak neurtzeko.

Titulu berekiei dagokienez, benetako sarrerak aurreikusitakoak baino nabarmen txikiagoak izan ziren, zortzi titulu bertan behera utzi baitziren ikasle faltagatik.

Hona gure gomendioak:

Agindutako jarduerak hasi baino lehen onartzea mandatua.

Agindutako jardueren likidazioan zer gastu eta sarrera jasoko diren zehaztea, bai eta haiek jardueraren bakoitzaren emaitzaren kalkuluan egozteko zer irizpide baliatuko diren zehaztea ere.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako irizpide guztiak bete ondoren.

Iruñan, 2009ko azaroaren 12an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKO-KO ERREKTORE MAGNIFIKOAREN ALEGAZIOAK

Lehen alegazioa

Behin-behineko txosteneko 3. orrialdea

Unibertsitateak, 2007ko abenduaren 31n, 22,67 milioi euroko diruzaintza-soberakina zeukan, eta kopuru horretatik 9,62 milioi batez ere ikerketa-proiektuen finantzaketari eratzikita zeuden eta, gainerakoa, 13,05 milioi, 2008an gastuak finantzatzeko erabilgarri zegoen baliabidea zen.

Behin-behineko txosteneko 15. orrialdea

“2007ko abenduaren 31n, diruzaintzako soberakina, guztira, 22.672.971 eurokoa zen, eta kopuru horrek egun hartan guztira metatuta zegoen likidezia adierazten du. Kopuru horretatik, 14.436.851 euro diruzaintzako funts likidoak dira. 2006. urtearen aldean, diruzaintzako soberakina, guztira, ehuneko 46 handitu da, aitortutako eskubideak 2006tik 2007ra bitarte haztearen ondorioz nagusiki.

Soberakin horretatik, 9.620.975 euro batez ere ikerketa-proiektuen finantzaketari daude eratzikita eta, gainerakoa, 13.051.995 euro, hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko eskura dagoen baliabide bat da.

Alegazioaren testua.

Comptos Ganberak jasotzen dituen datuak 2007ko abenduaren 31ko egoerari buruzkoak dira, 2007ko Memoria Ekonomikoan –Kontseilu Sozialak 2008ko uztailaren 2an onartua– jasotzen diren bezala.

	2007/12/31	Sortutako korrituak
Aldi baterako finantza-inbertsioak	7.021.848	291.145
Diruzaintza	7.415.003	205.001

Alegazioaren testua.

Comptos Ganberak jasotzen dituen datuak 2007ko abenduaren 31ko egoerari buruzkoak dira, 2007ko Memoria Ekonomikoan –Kontseilu Sozialak 2008ko uztailaren 2an onartua– jasotzen diren bezala.

	2008/12/31	2007/12/31
Aldi baterako finantza-inbertsioak	3.452.725	7.021.848
Diruzaintza	5.942.618	7.415.003

Eratzikirik gabeko soberakinaren zati bat 2008ko ekitaldian gastuak finantzatzeko erabili behar izan zen, ez baitzen nahikoa erabil zitekeen finantzaketa arrunta. Horregatik, 2008. urtearen amaieran, diruzaintzako soberakin guztia 19.141.033 eurokoa zen, eta kopuru horretatik 10.873.017 euro eratzikitzeko soberakinari zegozkion –soberakinaren zati handiena ikerketa-proiektuen finantzaketari lotuta zegoen– eta gainerakoa, 8.268.016 euro, eratziki gabeko diruzaintza-soberakinari, 2008ko Memoria Ekonomikoan jaso bezala –memoria hori 2009ko ekainaren 12an onartu zuen Kontseilu Sozialak–.

Gainera, eratziki gabeko soberakin ia guztia (8.000.000 euro, zehazki) defizit bat estaltzeko erabili behar izan da, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak jaistearren ondorioz 2009ko hasierako aurrekontuan gertatutako defizita.

Horregatik guztiagatik, uste dugu garrantzitsua litzatekeela geroagoko informazio hori jasotzea –Comptos Ganberaren eskura dago–, Unibertsitatearen finantza-egoeraren irudi zuzen eta eguneratua emateko.

Bigarren alegazioa

Behin-behineko txosteneko 4. orrialdea

2007ko urtarrilaren 31n, Unibertsitatearen diruzaintzako funts likidoak 7,41 milioikoak ziren, eta 7,02 milioi aldi baterako finantza-inbertsioetan zeuden inbertituta.

Behin-behineko txosteneko 44. orrialdea

Hau da Unibertsitatearen finantza-kontuen saldoa:

Aurreko alegazioan deskribatutako egintzen ondorioz, hau da, 2008 abenduaren 31n, Unibertsitatearen finantza-kontuen saldoa 2008ko Memoria Ekonomikoan jaso bezala –memoria hori 2009ko ekainaren 12an onartu zuen Kontseilu Sozialak–:

Uste dugu garrantzitsua litzatekeela geroagoko informazio hori jasotzea –Comptos Ganberaren eskura dago–, Unibertsitatearen finantza-egoeraren irudi zuzen eta eguneratua emateko.

Hirugarren alegazioa

Behin-behineko txosteneko 26. eta 27. orrialdeak

Aurreko ekitaldietako aurrekontuz kanpoko kontu-saldo okerrak daude; hauekin daukate zerikusia: BEZarekin, PFEZren atxikipenekin, segurantzaz-mutualitatearekin, osasun-laguntzarekin eta MUFACEarekin, hala nola itxitako zenbait ekitaldietako hartzekodunekin.

Hona gure gomendioak:

Aurrekontuz kanpoko kontzeptuen saldoak eta itxitako ekitaldietako hartzekodunenak aztertzea eta garbitzea, hala nola urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri guztiak koardratzea.

Alegazioaren testua.

Adierazi behar da aipatutako jarduera horietako batzuk eginda daudela; zehazki, aurreko ekitaldietako saldo oker hauek zuzendu dira 2009ko ekitaldian: PFEZren atxikipenekin, segurantzaz-mutualitatearekin, osasun-laguntzarekin eta MUFACEarekin zerikusia dutenak.

Laugarren alegazioa

Behin-behineko txosteneko 30. eta 33. orrialdeak

2007an sortutako langile-gastuak 42 milioi eurokoak izan ziren; hau da, egindako gastu guztien ehuneko 56. Aurreko ekitaldikoekin alderatuta, ehuneko zortzi handitu dira.

Ez dira sartzen Ikertzaile Irakasleen ikerketa-ordainsariak, ez baititu giza baliabideen zerbitzuak tramitatzen eta ez baitira langile-gastuak balira bezala kontabilizatzen. Ordainsari aldakor horiek ez dira kontuan hartzen PFEZrako atxikipen-mota zehazteko.

Hona gure gomendioak:

Ikerketa-ordainsarien ordainketa tramitatzea giza baliabideetako zerbitzuan, haiek nominan sartzea eta langile-gastuetako 1. kapituluan kontabilizatzea. Ikertzaile-irakasleen PFEZren atxikipentasa zehaztea, kontuan hartuta bai ordainsari finakoak bai aurreikus daitezkeen aldagaiak.

Alegazioaren testua.

2008ko urriaren amaieratik, funtzionario diren ikertzaile-irakasleei ordaindutako ikerketa-sariak

nominan sartu eta langile-gastuen 1. kapituluan kontabilizatzen dira. Kontabilitatean, "33 3000 141.11 Ekitaldiko Proiektuak eta Lanak. Ordainsariak" izeneko aurrekontu-aplikazioan jasotzen dira, 2008ko Memoria Ekonomikoan egiaztatzen den bezala.

Kontratututako ikertzaile-irakasleekin ez da gisa berean jokatu, eta arrazoia da konplexua dela zenbateko horiek nominan jasotzea, horretarako gaur egun erabiltzen den aplikazio informatikoa egokitu beharko litzatekeelako.

Sariak ordaintzeko zenbatekoa langileari ordaindu beharreko zatiaren eta Gizarte Segurantzari dagokionaren artean banatu behar da, eta berriz kalkulatu behar dira kontzeptu horren pagamendua sortu den hilabeteetako kotizazioak.

Kontuan izan behar da 2009. urte honetan irailaren 30era arte ordaindutako ikerketa-sari guztien % 70 lehenengo kapituluan jasotakoei dagokiela.

Bosgarren alegazioa

Behin-behineko txosteneko 34. eta 35. orrialdeak

2007. urtean egindako gastu juridikoak 102.634 eurokoak izan dira. Zenbateko horretatik, 77.978 euro hilabeteko 6.000 euro inguruko fakturak aurkezten dituen profesional baten gastuak dira, baina ez dago adjudikazio horretarako kontratuzko prozedurari dagokion tramitaziorik.

Hona gure gomendioa:

Gastu juridikoak kontratatutako zenbatekoari dagokion esleipen-prozeduraren arabera esleitzea.

Alegazioaren testua.

Adierazi behar da gastu juridikoei lotutako fakturak ez zirela hileru egiten; aitzitik, prozedura judizial bakoitzeko egiten ziren, prozedura lehen instantziakoa izan edo apelaziakoa. Enkargu hori Unibertsitatearen Estatutuetako 145. artikuluan adierazitakoaren babesean egiten zen: "Errektoreak, bidezkozat jotzen duenean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko zerbitzu juridikoetakoak ez diren abokatuei esleitu ahal izanzen die defentsa juridikoa eta prozesu-babesa, eta horren berri emanen dio Gobernu Kontseiluari".

2007ko ekainean, egungo errektore-taldeak erabaki zuen unibertsitate honetako erregimen juridiko eta administratiboko zerbitzuko abokatuek egin behar zutela unibertsitate-erakundearen defentsa juridikoa. Erabaki hori gaur egunera arteko prozesu judizial guztietan bete da, bi prozeduratan izan ezik; izan ere, prozedura horietan

–batean bildu ziren– zerbitzuburu baten kargu-uztearen aurka egin zen, baina, prozeduraren xedeagatik beragatik, egokiagotzat jo zen kanpo-abokatu batengana jotzea.

Erabaki horren arabera jokatzearan, bestalde, Comptos Ganberak berak egindako gomendio bat betetzen zen; gomendio hori aurreko txostenetan jasota zegoen, eta esaten zuen komeniko zela Unibertsitatearen defentsa-jarduera arruntak unibertsitateko zerbitzu juridikoek berek beren gain hartzeko aukera aztertzea.

Horren ondorioz, 2008an nabarmen gutxitu dira 2007. urtearen aldean auzi-sari juridikoengatik aitortutako obligazio garbiak, eta aurten –2009– oraindik ez da inolako gasturik egin.

Seigarren alegazioa

Behin-behineko txosteneko 44. orrialdea

Ondasunen aseguruari dagokionez, aseguratutako zenbatekoa ez da aldatu 2004. urtetik.

Hona gure gomendioa:

Aseguruen poliza berraztertzea, kontratatutako estaldura egiaztatuzeko, bai eta ondasun guztiak aseguratuta daudela ere.

Alegazioaren testua.

Unibertsitateak 2004an izenpetutako kalte-galeretarako aseguruaren poliza bitan aldatu da geroago beste ondasun batzuk sartzeko, eta horrek ordaindu beharreko prima handitzea ekarri du. Zehazki,

a) 2008ko abenduaren 13an, Tuterako campuseko instalazio eta ondasun berriak jaso ziren haiek bukatu ondoren. 2249/2008 zk.ko Ebazpena, abenduaren 30ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearena, Nafarroako Unibertsitate Publikoak kalte eta galera materialetarako egindako aseguruaren kontratua (2009/C0023/03) aldatzen duena.

b) 2009ko ekainaren 1ean, Nafarroan Nanoteknologia Ikertzeko eta Garatzeko Fundazioari (Fidena) utzitako instalazioetan jarritako ekipoak jaso ziren.

Iruñan, 2009ko azaroaren 9an

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea:
Julio Lafuente López

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Behin betiko txostenean kontuan hartu da 2008ko abenduaren 31n zegoen diruzaintza-soberrakinari buruzko lehen alegazioa eta behin-behineko txostena aldatu da.

Gainerako alegazioei dagokienez, eranskin gisa gehitzen dira, egindako jardueraren azalpena direla eta azalpen horrek haren edukia ez duela aldatzen pentsatzen baita.

Horren ondorioz, behin-behineko txostena behin betikoa bihurtzen da.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

